

## PLAZERA ERDIGUNERA

Eduarne Mendizabal eta Haizea Egiguren sexologian eta hezkidetzan adituak dira. Hobetzeko asko dagoela uste dute 20

BATZUETAN, GAUZA  
**BATEK**  
IZUGARRIZKO  
**ALDAKETA**  
ERAGIN DEZAKE

**TXIKI**

Origi entzuteak bizi ahalizten ditu. Guren aurri entzaimentus hobetzeko behar dizuzene eskainiko dizugu:

1. Doako entzumen azterketa sakon bat eginez, entzaimen galera **AURRE IKUSTEN** duguz.
2. Entzaimenaren azterketa plan batekin eta jarraipen pertsonalizatuarekin **LAGUNTZEN** zaitugu.
3. Deskontu bereziak eta neurriko finantziaketa eskainiz **LAGUNTZEN** zaitugu. Kontsultatu zure zentzuan.

Galderak eta iradialak: [iradialak@gaes.es](mailto:iradialak@gaes.es), [galderak@gaes.es](mailto:galderak@gaes.es), [iradialak@gaes.es](mailto:iradialak@gaes.es), [iradialak@gaes.es](mailto:iradialak@gaes.es)

**PROBATU  
DOAN GURE  
AUDIFONOAK**

**SOILIK GAES-EN**

**GAES AZPEITIA**

Foru Pasealekua Ibilbidea, 8  
T. 943 150 395

**GAES**  
Centros Auditivos

[www.gaes.es](http://www.gaes.es)

# MILAR LARRAMENDI

Etzetresna elektrikoak



- ELEKTROGAILU AUKERA ZABALA
- SMART RETAIL PANTAILA BITARTEZKO EROSKETA
- GARRAIO eta INSTALAZIO ZERBITZUA
- BIRZIKLATZE GESTIO INTEGRALA
- OBRA eta DEKORAZIO ZERBITZUAK
- [www.milar.eus](http://www.milar.eus) ON LINE EROSKETAK



608 313 047 (Etzetresnak)  
688 616 881 (Sukalde Gunea)  
Whatsapp bidezko zerbitzua.  
**Azkarrena!**

# MILAR Cooking&Chef

Sukalde Gunea



Julio Urkixo etorb. 16 | AZKOITIA  
Tel. 943 85 18 97



Xabier Munibe 11 (Liburutegi ondoan) | AZKOITIA  
Tel. 943 85 00 41

[www.milar.eus](http://www.milar.eus)

# uztarria

**Argitaratzailea.** Uztarrria  
 Komunikazio Taldea. Azpeitia  
**Egoitza.** Perez Arregi plaza 1, behea,  
 (Azpeitia, 20730)  
**Telefonoa eta faxa.** 943 15 03 58  
**Posta elektronikoa.**  
 uztarrria@uztarria.eus  
**Posta kutxa.** 227, Azpeitia  
**Lege gordailua.** SS-860/2000  
**Zenbakia.** 207.a (2018ko uztailea)  
**Urtea.** XIX.a (1999ko azaroan sortua)  
**Maiztasuna.** Hilabetekaria  
**Diseinua.** Eregi Komunikazio eta  
 Euskara Zerbitzuak  
**Publizitatea.** 685780412 /  
 uztarrria@uztarria.eus  
**Bazkidetza.** 943 15 03 58  
**Tirada.** 2.500 ale hilerok  
**Inprimategia.** Leitzaran Grafikak  
**Azaleko argazkia.** I. Elustondo  
**Webgunea.**  
[www.uztarria.eus](http://www.uztarria.eus)

Uztarrria herri aldizkariaren laguntzaileak



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Hezkuntza, Hizkuntza  
 Politika eta Kultura Sailak  
 (Hizkuntza Politikarako  
 Sailburuordetzak) diruz  
 lagundua

**Oharra.** Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkarian esandako iritzien erantzukizunik

## ||| 2018KO UZTAILEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER? |||



### iritzia

**Inkesta.** Ba al duzu eguzkia hartzera joateko ohiturarik? **13**

### mamia

**Elkarrizketa.** Olatz Prat da Kultur Mahaiko lehendakari berria, martxoaz geroztik **04 Klik!** 25 urte bete ditu aurtien Orkatz kultur elkarteak **16**

**Pinuak gaixo.** Intsinis pinuak urte gutxian desagertu daitezke Urola aldean, gaitzak jota daudelako **26**

### jakiteko

**Bestaldetik.** Asier Cuevas korrikalariak badu beste alde bat ere **34**



**Ba al dakizu** Azpeitiko gaztetxeak kontu Lepo irratia jarriko duela martxan datozen asteetan? **Uztarrria**

**Izan uztarriaren bazkide** **943 15 03 58**

**Herri aldizkariaz gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu.** Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1 eta biografia txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.

**1.060** bazkide **30** euro dira urtean. gara Uztarrria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei.



**Liburuxka biografikoak, oraingoz.** Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta

# OLATZ PRAT

Kultur Mahaiko lehendakaria

## “Kultur transmisioa helburu estrategikoa da”

Sortzailea eta kulturgintzan aritua, Azpeitiko Kultur Mahaiko lehendakaria da. Kultur Mahaiak egindako lanez eta dituen erronkez hitz egin du. 📝📍 Julene Frantzesena

**A**bsentzia, sortzailea eta kulturzalea. Martxoaz geroztik, Azpeitiko Kultur Mahaiko lehendakaria ere bai. Olatz Pratek gogoz ekin dio egiteko berriari, eta herrian kultura behar duen tokia hartzen hasita dagoela uste badu ere, erronka ugari dituztela azaldu du.

**Lehen urratsak 2006an egin ostean, 2008an hasi zen modu iraunkorrean eta jarraikorrean funtzionatzen Azpeitiko Kultur Mahaia. Hamar urteotan egin du euririk...**

Egin du, bai. Denean bezala, hasieran indar, ahalegin eta izerdi asko jarri zen gaur egun den kultur mugimendu guztia martxan jartzeri, eta badirudi aieratze fase hori

gaindituta, abiadura egonkortu egin dela. Lan izugarria egiten duen jende asko dago, meritu itzela daukate.

**Kultur Mahaiaren helburu nagusia Azpeitian kultura indartzea dela dago jasota elkarrearen estatutuetan. Lortu al du helburua? Zertan asmatu da eta zertan ez?**

Nabarmen baietz esango nuke, batez ere kultura herriko lehentasunen artean jarri delako. Kultura behar-beharrezkoa da herritarren bizikidetzarako eta kohesiorako, eta ulertzen ari gara kultura bizi, elikatu, zaindu eta indartu egin behar den zerbait dela. Horretan zeharo asmatu dela esango nuke. Bestalde, esango nuke beti dardela hobetzeko eta sakontzeko ar-

### |||DATUAK|||||

|||**Jaio.** 1984ko ekainaren 17a.

|||**Herria.** Azpeitia. |||**Bizitokia.** Azpeitia. |||**Lanbidea.**

Elkarrizketa prozesuen erraztailea.

loak: komunikazioa, esaterako; eragileen eta herritarren arteko bi norabideetako komunikazioa.

**Kultura indartzea ez ezik, honako hauek ere baziren hasierako helburuak: kultur arloko pertsonak nahiz taldeak elkartu, herriko kultur arloa antolatuta, kultur azpiegiturak zabaldu eta kultur egutegi orekatua sortu. Helburu horiek bete direla esan al dezakezue?**

Uste dut helburuak betetzen ari garela. Kultur Mahaiak ahalbidetu du herriko eragileak saretzea eta elkarren arteko harremanak erraz-

tea, eta horiei nolabaiteko etxe komun bat eman zaie, eskaerak, kezak eta proposamenak partekatzeke. Horrez gain, funtsezko piezak izan dira Sanagustin kultur-gunea eta Soreasu antzokia. Kultur arloa antolatuta dagoela bistakoa da; Udalarekin elkarlanean, kultur eskaintza zabala, orekatua, landua eta aberatsa izan dadin lanean ari gara. Horrez gain, askotariko kultur diziplinei bide ematen ere bai, jendearen beharrei erantzuten saiatzen, orainean ez ezik etorkizunean ere pentsatzen... Helburu batzuk betetzen ari gara, eta helburu berriak etengabe ari dira sortzen.

**Zeintzuk dira Kultur Mahaiaren erronka berriak?**

Kultur Mahaiak sormena eta trans-



misioa izan ditu ardatz hasieratik, eta datozen urteotan Soreasuko Sormen Guneak bi arlo horietan jauzia ematen lagundu behar digu: sormena babestuz eta indartuz batetik, eta sormenaren bitartez transmisioa bermatuz bestetik. Ezinbestekoa dugu, gozamenaren bidez, belaunaldi berriak gure jardunera erakartzea, eginez, huts eginez, ikasiz, elkarbanatuz.

**Kultur arloan urrats ugari egin da azken urteotan herrian: Kultur Mahaia sortu ostean, haren eskutik etorri da Kulturaz kooperatiba. Zer ekarri dute horiek herrira?**

Mahaia eta Kulturaz ez dira herrira etorri, herritik sortu dira. Horixe dute ona Kultur Mahaia eta Kulturazek, Azpeitiko Kultur Mahaiaren Kooperatibak: herritarrek egindako lanari esker sortu ziren, eta herriko jendeak egunero egiten duen lanari esker daude bizirik eta ari dira etorkizuneko proiektuak lantzen. Kultur eskaintza oparota eta anitza gauzatzeko modua eka-

rra dio herriari Kulturazek, baita egunero horretan lanean ari den jendearen inplikazioa eta elkarlanean proiektuak egiteko aukera ere. Funtsean egitura egonkor bat, aurrera begirako proiektuak eta norabidea ekarri ditu.

**Azpeitiko kultur mugimendua eta eskaintza askotarikoa eta ugaria da. Kultur ekitaldi asko izateak berarekin al dakar kulturzaletasuna sortzea edo bermatzea?**

Lehen gutxiegi, eta orain ezin dena iritsi! Nahiago dut, hala ere, aukeratu beharra izatea, non aukeraturik ez izatea baino. Egia da Azpeitiak 14.000 biztanle dituela, baina uste dut Azpeitiko kultur eskaintzak aspaldi gainditu zituela herriko mugak; izan ere, Azpeitia kultur erreferentzia bihurtzen ari da gure mugez kanpo ere. Adibide batzuk jartzearren: Euskal Herrikoek gain, Espainiako eta nazioarteko artista ugari pasatu da gure oholtzetatik, eta horiek herriko nahiz herritik kanpoko jende ugari

erakarri dute. Bestalde, Euskal Herri osoko antzerki konpainiak ari dira Sormen Egonaldiez gozatzeten, eta Zizurkilgo Udalarekin eta Italiako Napoli hiriko ENNEA elkartearekin Erasmus+ GazteArt truke programa ere gauzatu zeniaz. "Azpeitiarrok azpeitiarrontzat" baino zerbait zabalagoa da hau jada. Nik uste kulturzaletasuna sortzeko eta bermatzeko modu bat dela kultura bera bizirik mantentzea, etengabeko mugimenduan egotea. Gelditzen bada, hiltzen bada, akabo.

**Kultur transmisioa askotan aipatzen da helburu moduan. Zein dira herrian transmisio hori bermatzeko gakoak?**

Transmisioa helburu estrategikoa da. Garrantzitsua da guretzat Azpeitiko eta Euskal Herriko kulturarekiko jakin-mina eta hari buruzko ezagutzak helaraztea belaunaldi berriei; hau da, lehengoan ondarea oraingoan eskura jartzea horiek modu erakargarrian eta naturalean barnera dezaten. Finean,

nondik gatozen jakiteak ere egiten gaitu garena. Dena den, transmisioaren lehengoetatik oraingoetara norabide bakarreko ikuspegia zabaldu egin behar dugu, nire ustez transmisioak norabide guztietakoa izan behar duelako. Gazteek ere badute helduagoei eskaintzekorik, esateko eta emateko asko dute belaunaldi berriek ere, eta esan beharrik ez da talentua soberan dutela. Gure zereginetako bat izan behar luke komunikazio fluxu hori bermatzen saiatzea; guztientzako espazioak sortzea eta jendeak elkar ezagutzeko eta horiek elkarrekin nahasteko aukerak bideratzea.

**Sanagustin kulturgunea ez ezik, Soreasu antzokia ere Kulturaz kooperatibak kudeatzen du. Orain, gainera, Sormen Gunea eraikitzeko lanak hasi ditu Udalak. Zer ekarriko du herrira Sormen Gune horrek?**

Sortzaileek beren lanak gauzatzeko espazio fisiko bat izango da,

eta horiek sormen prozesuan izan ditzaketan arazoak, oztopoak edo zalantzak gainditzen laguntzeko komunitate bat ere aurkituko dute bertan. Sormen Guneak esperientziak partekatzeke leku bat izan nahi du, sortzaileari bidea errazteko tresna bat. Nahiko genuke, gainera, gune horretan sortzen diren gauzak herritarrei gerturatzeko eta eskaintzeko bideak zabaltzea, ez daitezen izan Sormen Gunean hasi eta amaitzen diren zerbait eta herriaren kultur dinamika orokorrarentzat aberasgarri izan daitezen.

### **Sorkuntza bekak, Dinamoa gunea... Sormena ere bada Kultur Mahaiaren ardatzetaiko bat. Osasuntsu al dago sormena Azpeitian?**

Bada sortzeko gogoz dagoen jendea, eta ez da gutxi. Hala ere, jende horri babesa, giroa eta laguntza ematea da gure asmoa: lanerako, elkarrekin eta elkarrengandik ikasteko leku bat, proiektuak garatzeko baliabideak, sare bat. Sorkuntza bekak garrantzitsuak dira bide horretan, eta Dinamoa zer esanik ez. Sortzaileak babesa sentitu behar du, egin nahi duen hori egiteko modua baduela, baina erantzun bat ere bai, giroa, elkarrizketa eta aurrera egiten lagunduko dion komunitatea.

### **Herriko kultur talde guztiek osatzen dute Kultur Mahaia. Nola saretzen dira horien guztien arteko harremanak?**

Hori teknikariari galdetu beharko zaio... Gauza guztietan bezala, afektutik hasten dira askotan gerora produktibo bilakatzen diren harremanak, eta informalak izaten dira hasieran harreman asko eta asko. Baina egia da, barne komunikazioaren bitartez, sistematizata ere badaudela harremanak;



izan ere, hainbat batzar egiten du Kultur Mahaia.

### **Herriko taldeek elkarlanean hainbat ekitaldi egiten dute urtez urte. Taldeen arteko elkarlana sustatzea lortu du Kultur Mahaiaren dinamikak, ezta?**

Bai, hori du eginkizunetako bat. Herriko kultur eragileak elkartuta sortu zen Kultur Mahaia, eta herriko kultur eragileek elkarrekin lan eginda ikasten dute elkarrengandik gehien. Bertako kultur gileak balioestea da oinarria, aintzat hartzea, horiei lekua egitea eta agertokia ematea. Bakoitzari gustatzen zaion horretan lan egitea eskatzen diozunean, erantzuna beti izaten da ona, eskuzabala.

### **Zer da kultura zuretzat?**

Gizaki egiten nauen hori, neure buruaz hausnartzeko eta neure burua ezagutzeko bidea, besteak –beste pertsonak, beste kulturak– ezagutzeko eta horiek errespetatzeko ezinbesteko tresna.

Eta, batez ere, gozamina. Hori dena da kultura niretzat.

### **Sortzaile zaren aldetik, nola bizi izan duzu Azpeitiko kulturaren bilakaera?**

Baikortasunez begiratzen diot bilakaera horri, kultura ari da merezi duen lekua hartzen. Herrian gero eta espazio gehiago dago sortzaileentzat eta sormenarentzat, eta hori beti da ona.

### **Azpeitia bezalako herri batean erraza egin al zaizu kultur arloan aurrera egitea?**

Txikitatik hartu izan dut parte herriko kultur egitasmoetan, musikaren arloan, batez ere: musika eskolako kontzertuak, bakarlarri moduan edo taldeetan eskainitako emanaldiak, hainbat talderekin egindako kolaborazioak, herriko ekitaldi desberdinen abestietan edo dena-delakoetan egindako ekarpenak... Beti sentitu izan naiz estimatua eta errespetatua herrian. Egin nahi izan ditudan gauzak egin ahal izan ditut, eta hori

bera ez da gutxi. Kulturaren aurrera egitea bezain zaila da lehen pausoa ematea, eta alde horretatik oso presente daukat Juan Antxietak musika eskolak nigan izan duen eragina; izan ere, musika eskolan jabetu nintzen musikak eta abesteak sortzen duten plazeraren tamainaz.

### **Kultur arloarekin lotura estua izan duzu. Nola hartu zenuen lehendakari izateko proposamena?**

Jaso izan dudana horri guztiari bueltan zerbait emateko modu bat dela uste dut. Uste dut herritar gisa denok dugula herriarekiko ardura bat edo zor bat, komunitatearen alde zerbait egiteko betebeharrak moral bat. Lehendakari naizen bitartean, nire helburu nagusia izango da herriko kultur mugimendua indartzeko eta sendotzeko lanean gogor ari diren horiei babesa eta laguntza ematea, ekarpenak egitea eta lagun dezakedan guztian laguntzea.\*

OBRA ZUZENDARITZA ETA GREMIOEN KOORDINAZIOA  
AURREKONTUAK ETA OBRA NEURKETAK  
IREKIERA ETA JARDUERA BAIMENAK  
ERAIKINEN IKUSKATZE TEKNIKOA (ITE)

**JON ESNAOLA**

ARKITEKTO TEKNIKOA

M: (+34) 647 654 506

T: (+34) 943 15 7000

E: info@jonesnaola.es

www.jonesnaola.es

 **Etorkizuna da**

**Etorkizuna da** gure seme-alabena

**Etorkizuna da** jasangarria

**Etorkizuna da** hezkuntza

**Etorkizuna da** emakumezkoena

**Etorkizuna da** geurea

**Etorkizuna da** berrikuntza

**Etorkizuna da** kohesio soziala

**Etorkizuna da** euskara

**Gipuzkoaren etorkizuna da  
guztion artean eraikitzen  
duguna.**

**Parte hartu  
[gipuzkoa.eus/etorkizunaeraikiz](http://gipuzkoa.eus/etorkizunaeraikiz)**

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



**ETORKIZUNA  
ERAIKIZ**

# Bagoaz

**A**utobusean musika entzuten zoazen bitartean, goizean bost minutu gehiago luzatzen dituzun dutxa epeletan edo ostiral arratsalde bateko bosgarren zerbeza amaitzen duzunean, pizten zaizu behar bat barruan, kontatzea ezinbestekoa zaizun zerbait, barruan gorde ezin duzuna. Irekitzen duzu word dokumentu huts bat, eta abiatzen zara, gonbitoka.

Burdina berotan jo behar omen da, halaxe dio esaera zahar batek. Segundo eskas baten iraupena duen izar uxoa bat bezalakoa da ideia bat. Ezin pasatzen utzi derrepentean otu zaizun kontakizun hori, eta mugikorrean gordetako zirriborroei nolabait itxura bat ematen hasten zara, artisau lana egiten. Ikastolan erabiltzen zenuen plastilinen moduan, kolore ezberdinen moldeen baturatik txukuna dirudien zerbait sor zenezakeela konturatzen zara.

“Erraza zirudien”, pentsatzen duzu. Izatez ez duzu burua, hatzak eta orrialde zuri bat besterik behar idazten hasteko. Baina idazten duen orok dakienez, kontu konplexuagoa da karaktereak ezerezetik eratzea, botepron-toan. Gero, publikatzen duzu zure ustez balekoa den zerbait, eta jendea hurbiltzen zaizu idatzi duzunaren azalpen eske, Marcel Duchampen *iturria* parez pare izango balu lez. Konturatzen zara beharbada zeure estilo propioa ere garatu duzula, edo antzeko zerbait.

## Arkatza beste norbaiti

Halakoxea da idaztearen plazera, eta halakoxea lehen egunetik bertatik txoko honetan idazten pasatu ditudan hilabeteek eragin didaten emozioa. Unibertsitateko irakasle batek garai batean esan zidan moduan, egiten duzunaz harro bazaude eta erakusten ez baduzu, ez du ezertarako balio. Antzeko sentimentu bat izan dut urteotan erakutsi ditudan iritzi artikulu, olerki eta kontakizunekin. Ederra da erantzunak jasotzea, onak ala txarrak, baina jasotzea behintzat.



|||||||||||anartz izagirre|||

|||Ideiak badatoz eta badoaz, ordea, eta izan-uxoak ez dira egunero pasatzen nire zerutik

Komentatu izan dut aurreko artikuluren batean, Azpeitia ez dela idazteko plaza erraza eta zenbaitetan autozentsuratu ere egin izan naizela hainbat gairen inguruan. Esan gabe doa, ordea, Uztarriak askatasuna eman izan didala beti kontatu nahi nuena kontatu nahi nuen bezala kontatzeko, eta garaiotan eskertzen da adierazpen askatsun osoa izatea, mingaina moztu nahi digutenean.

Ideiak badatoz eta badoaz, ordea, eta izar uxoa ez dira gauero pasatzen nire zerutik. Bat-batean konturatzen zara ideiek ere urtarok izan badituztela, eta urtegiak basamortutik gehiago duela. Horregatik, iruditzen zait badela arkatza beste norbaiti pasatzeko unea, hurrengo euritera arte behinik behin.

Azken lerroak eskerrak emateko baliatu nahiko nituzke. Mila esker, aldizkariari eta bertako kazetariei idazteko aukera emategatik. Mila esker, marrazkilaritari esan nahi izan dudana hain ondo azaltzeagatik, eta mila-mila esker, nire lerroak jasan dituzuen irakurle orori; pentsatzen dut ez dela ahuntzaren gauerdiko eztula izango. Izan argi elkar ikusi edo irakurriko garela hor nonbait, izar uxoak berriz zerutik pasatzen direnean.✘





**AZPEITIA ERE  
PREST DAGO  
EUSKARALDIARI  
EKITEKO!**



## HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA.** Azken urratsak ere euskaraz.

Herriko saltoki bat eskualdatzekotan dira, eta azken eskaintzen berri emateko kartelak euskara hutsean kaleratu dituzte. Bejondeizuela! [Uztarrria](#)

**BEHERA.** Ulertzen da, baina...

Hitz gutxitan akats gehiegixo. Azoka Plazaren atzean autoa aparkatzeko argibideak jasotzen dituen seinalearen euskarak badu zer hobetu. [Uztarrria\\*](#)



Pako Aristi.

## ESANA DAGO

“Ateratzen naiz kalera, eta ikusten ditut batzuk beren eguna bizitzen, baina beste asko, eguna irensten”

“Nire poesia poesia soziala da, gaur egungo bizitzarekin lotuta dagoen literatura; nik hala bizi dut”

PAKO ARISTI  
idazlea

“[Herriarteko Txapelketako] finalak ezustean harrapatu gaituela esatea ez da egia osoa esatea; egindako lanaren emaitza izan da”

URTZI LOPETEGI  
palista

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK\*

**URBISTONDO MARGOAK**

Salbe Auzunea, 35 behea      20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

**CITROËN** 943 811 915 - AZPEITIA  
alertzaautoak@telefonos.net

**MOTA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK**

## Egur puskatzailea laguna dut

**M**undualdi honetako gauzarik ederrenetakoa, bizitzaren iturburutik heriotzaren itsasora iritsi arte, Urola ibai kuttunean barrena, bidean egiten dituzun lagunak. Lagun-lagunak esku bakarreko hatzekin zenbatzen omen dira. Lagun asko duela uste duena ere inozo samarra omen, lagun usteko horietako asko bizkarra noiz erakutsiko zain egoten omen dira eta. Inozo kuadrilla horretako kidea naiz. Mende Erdiko bidean, asko estimatzen dudan lagun dezentente egin dut. Eta sarri, nik beraiei baino berareiek niri gehiago eman didatelakoan nago. Eta bizkarra inori erakusteko beldurrik gabe bizi naiz. Eta ez da gihartsu eder horietakoa dudalako izango!

Lagunak egiteko erak eta erak daude. Txikitxikitakoak dituzu, eskolakoak, futbolekoak, kuadrillakoak, institutokoak, unibertsitatekoak, lanekoak, zure haurren lagunak gurasoak eta abar luzea. Nire ogibide maiteari esker, jende asko ezagutzeko aukera izan dut. Batzuk oso ezagunak, beste batzuk itzalean lan zintzoa egiten dutenak. Miramongo komentuan klusuran gordeta naukatenez, ia denak telefonoz ezagutu ditut, ahotsarekin konkistatuta. Horietako bat da aspaldian xapoon herrira sarri etorri eta beti txapela jantzita joaten den bat. Azken bidaian txapelik gabe joan da, barrutik triste baina aurpegian irribarrea duela.

Askoko estimatzen dut. Goitik beherako



txetxu urbieta

gizona, beti laguntzeko prest, gure herri eta hizkuntza zaharraz maitemindua. Hitzak bai, baina ekintzak ere bai. Bitxia dena da bi aldiz bakarrik egon garela aurrez aurre, eta bietan oso denbora gutxiz gainera. Baina bion artean kimika deitzen dioten hori dagoelakoan nago. Sare sozialetan elkar zirikatzen eta egurtzen saiatzen gara –erraz makurrarazten dut–, baina zenbat eta adar gehiago jo elkarri, are lagunago sentitzen gara. Berarekin dudan zorra ere benetan bitxia da: berak ordaindu beharreko bazkaria zor diot. Ez dakit inoiz aizkolari titulua emango diodan, baina lagunarena aspaldi irabazi zuen. Eta Athleticekoa da gainera... Urbieta, hi beti jende ahulaz inguratuta...\*

IKUSTEKO!



### ▲ FOSO BAT ERE BADA SOREASU ANTZOKIAN.

Soreasu antzokiko areto nagusiaren azpialdean bada leku ezkutu bat: orkestrarentzat fosoa. Fosoa agertokiaren eta ikusleen artean egoten da, eta musikariek handik parte hartzen dute hainbat obratan. Batez ere, operetan edo ballet emanaldietan erabiltzen dute musikariek fosoa. Azpeitian noiz estreinatuko dute gune hori? 🙌🎭 **Julene Frantzesena**\*

## ███EKAINEN ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...████████████████████



### *Ez, beti da ez*

**GIZARTEA.** Berriz ere ikusi dugu justiziarri eta epaileei zenbat axola zaizkien emakumeak. Noiz arte jasan behar dute tratatu hau? Noiz bukatuko dugu giza gaitz honekin? "Manada" delako horri zer egitea gustatuko litzaidakeen adieraziko banu lerrootan, epaile horiek urte gehiagotako espetxe zigorra jarriko lidateke. Herriko festen atarian garela, betiko mezua errepikatuko dut, zoritxarrez, batzuei buru huts horretan ez zaielako sartzen: ez, beti da ez. Esaldi hori errepikatzen dugun azken aldia izatea nahiko genuke gehienok, eta denon artean soilik lortuko dugu hori.



████████████████████ieltxu caballero████████████████████



### *Demokraziaren bidea*

**POLITIKA.** Demokraziaren bidea sasiz eta oztopoz garbitu zuten euskal herritarrek beste behin. 150.000 pertsona jai giroan murgildu ziren erabakitze eskubidea aldarrikatzeko; 1.500 azpeitiarrek ez zuten hutsik egin egun hartan. Baina pare bat galdera datorkit burura: batzuek zergatik diote hainbeste beldur galdeketa bat egiteari? Ez al da errazagoa ezetzaren aldeko kanpaina bat egitea? Galdeketa egunean irabaziko du demokraziak, eta ez saltzen diguten askatasun faltsu horrek.



### *Urteko gaurik magikoena*

**FESTAK.** San Juan gaua, urteko gaurik magikoena, antzinako ohitura paganoetan oinarritutako festa, eta Euskal Herrian sorginkeriekin oso lotuta dagoen jai. Batzuek, zorte onaren bila, suaren gainetik egiten dute salto, gaztetxoek ikasturtean zehar egindako etxeko lanak erre-

tzen dituzte... Gauza bat sumatzen dut faltan: aste batzuk lehenago altzariak eta egur zatiak bildu, gorde eta sua egingo den tokira eramatea. Gazteen arteko lehiak nork tontor handiagoa egin, auzoetako kideak elkarri egurra kentzen ibiltzea... haiek bai garai ederrak!\*

INKESTA

eguzkia hartzeko ohiturarik ba al duzu?

Thintza Elustondo/Kris Fernandez

IMA EPELDE

59 urte



“Gutxitan joaten naiz eguzkia hartzera, ez zait asko gustatzen.

Tartean behin, hondartzara joaten naiz, baina, batez ere, paseoan ibiltzen naiz”.

OIER IBARGUREN

21 urte



“Ez zait batere gustatzen eguzkitan egotea, urteak dira

hondartzara joan ez naizela. Batzuetan, baina, Urrestillako presara joaten naiz”.

VLADYS KUCHERENKO

24 urte



“Asko gustatzen zait eguzkia hartzea. Zumaiaiko,

Donostiako edo Zarauzko hondartzetara joan ohi naiz”.\*



402 kanpai

Bar art gauean ustekabeen esnatu naiz; ohartzera-ko erdi iratzarririk nengoen, gauaren erdian. Kanean isiltasun sakon bat sumatu dut, erabatekoa... harik eta hiru kanpai hots ozen eta baldarrek armonia osoa puskatu duten arte. Hirugarren hotsa sakonagoa izan da; “eta erdiak”, pentsatu dut. Zer eta erdi, ordea? Alarmako argiari eman eta erlojuan begiratu dut: 04:30. Goizegi jaikitze... Nahi gabe kalkulatu dut zenbat denbora falta zaidan gosaltzera altxatzeko; gehienez ere, pare bat ordu lasai lo seko egiteko.

Jada loa galdu dut, eta artean beste hiru kanpaiak jo dute, eta handik gutxira beste bederatzik, goizeko bostetan. Denbora aurrera doa, urduri jarri naiz, ezin dut jarrera erosorik hartu, jira eta bira nabil ohean, kanpaiak jo eta jo jarraitzen dute ordu laurdenero, eta nik denbora galtzen ari naizen sentipena dut. Eta horrek gero eta gehiago larritzen nau, amorrazioa diet gaueko kanpaei, ordu hauetan alferrikakoak direla iruditzen zaidalako eta gogaitu besterik ez nautelako



lierni varela

egiten. Gaueko ordu txiki hauetan lekuz kanpo daudelakoan nago, inguruko lasaitasuna apurtzen dute, gaueko munstro bihurtuz... Eta dorrearen goiko aldean, hor irudikatzen dut Infernuko Txikitoa kanpaiari helduta, maltzurki niri begira, “izorratuko haiz!”, esanez; eta bai izorratu ere! Nahi gabe, kanpaiak jotzen duten aldiro, kalkulatu egiten dut zenbat denbora daramadan horrela... hau bai amesgaiztoa, ingurukoak lo eta ni hemen!

Nork behar ditu gaueko kanpaiak egun? Zertarako daude? Kenezinak dira, ala gauez behintzat isil daitezke? Esan beharra dut, alabaina, izugarriko lana egiten dutela: egunean 420 aldiz jotzen dute ordua soilik adierazteko –imajinatu, 00:00etan, hamasei kanpai-. Deskantsu pixka bat eman geniezaieke: lanaldia erdira murriztuz eta gauez isilduz.

Kanpaiak gora, kanpaiak behera, ohetik jaikitzeko ordua... Asma ezazue nork eraman duen zombie aurpegia lanera...\*

galdetzen hasita, lortuko al dute azpeitiko pilotariek euskal herriko txapela herrira ekartzea? Uztarria

Txorien hizkuntza

Behin batean, ehun mila txori bildu omen ziren, argi oilarrak deiturik, Farid Al-Din Attar, XII. mendeko poeta pertsiar handiak –musulman mistiko sufia-, Txorien hizkuntza liburuan kontatzen duenez. Zoragarria liburua, txoriak bezala.

Han bildu ziren buztanikara, urretxindorra, galeperra, zapelata, ahatea, koartza, faisaia, usoa, hontza, kardantxiloa... denak. Bu-bu-bu, hasi zitzaizen argi oilarra buruko luma motots txairoa tarteka tente, tarteka zabal, koroa bailitzan. Bidaia luze bat egitera gonbidatu zituen Kaf mendira, non bizi baitzen Simorg txit goren, hegazti guztien errege paregabea. O, hura ikusi behar dugu, hil edo bizi.

Gehien-gehienek uko egin zioten bidaiari, hainbat aitzakiaz: luzeegia da, gogorregia, ez daukat indarrik; akatsak ditut, harroa naiz, nagia, plazerzale, urregose, herio-beldur; gainera, nola aurkitu Simorg, aurrez ez badakit nolakoa den? Eta aurkituta ere, zer eskatu? Eta, bestalde, nor da argi oilarra gu gidatzeko?



joxe arregi

Abiatu zirenek zazpi haran zeharkatu behar izan zituzten: bilaketa, muga gabeko maitasuna, ezagutza, norberaren burujabetasuna, batasun purua, ziurtasun eta jakintza oro kentzen duen maiteminare bertigoa eta erabateko pobretasuna edo norbere buruz erabat ahaztea eta hiltzea.

Urteak eman zituzten txoriek mendi eta haranetan, eta ia denak bidean geldituz joan ziren, etsita. 30 bakarrik iritsi ziren, ez luma eta ez hego, dena galduta, Simorgen egoitza irrikatura. Eta orduan, ezer gabe, orotatik libre, ororekin bakean, orduantxe ikusi zuten Simorg, eta harriturik ohartu ziren Simorg eta beraiek bat bera zirela, “Si-morg” hitzak horixe esan nahi baitu pertsieraz: “Hogeita hamar txori”.

Zirionaren bila egin zuten bide luzea. Guk bezala. Zirionaren bila, beste nonbait delakoan. Jainkoaren bila, beste bat delakoan. Aski da dena uztea, dena aurkitzeko. Dena uztea, baita erlijio sistema ere. “Ez naiz ez sinestun ez sinesgabe”, dio argi oilar mistikoak.\*

BITARTEAN  
MANRESAN...

QUE VE  
L'HOME  
DEL SAC



ATUREM  
MANRESA  
2022

QUE SANT IGNASI  
ES QUEDI A LA COVA!

BADATOR ZAKUREN GIZONA EN GELDITU MANRESA 2022  
-SAN NAZIO GERA DADILA HAITZALON!



## “Como te lo digo:...”

**E**rabaki al duzue zer egin oporretan? Egia esan, kanpora joatea deskonektatzearekin lotzen duen horietakoa naiz. Hala ere, erabakiek ebakitzen naute askotan, eta asmoak horiek gauzatzeko denbora baino ugariago izaten direnez, aukeratzeak dakarren galera sentsazioa ez zait batere gustatzen.

Psikoanalisiak psikoanalisi, bada urtero lotu ohi dudana zita. “Al pueblo”-ra bisita, urrutiko familia eta gertuko lagunez gain, nire aitaren etxea ere han baitago kokatuta; ohiturek sortu dute tradizioa. Abuztuko egun batzuetako errituala. Quintana de la Serenan batu eta

urtea errepasatzeko aukera eskaintzen duen elkartruketa. Distantziatik beste era batera begiratzen da atzera, eta perspektiba horretatik ertz desberdinak partekatzeo aukera izaten dugu. Terapeutikoa dela esan nezake, eta onartzen dut arbasoen munduarekin bat egiteak sortzen didala hitzetara ekartzea kostatzen zaidan sentimendua. Urtean behineko besarkaden bila joaten gara, eta elkar elikatzeko aukera diren ordu gutxi horiek zukutzen ditugu gau eta egun.

Bizipen horrekin eta txerriki sorta besapean bueltatzen naiz urtero, desberdintasunak

berdintasun, errespetuzko harreman bat lantzeko gai izan garena baieztatuz.

Sentipen hori lausotu egiten zait bueltan, bere aitaren etxea nirearen moduan “por aquellas tierras” dituen norbaitek abuztuan han izan naizen galdetzean. Egozpen tonuan eta paternalismotik, erroak ez galtzea exijitzen dit gaztelaniaz, euskararen arnasmune den herrian, *herrikoan* kafea hartzen duen izen-abizen espainoleko gazte euskalduna naizela jakinda, niri buruz dena ezagutuko balu lez. “Como te lo digo: hainbeste gogoetaren ondoren, koherente naiz nire kontraesanekin.”\*



felipe murillo

## Erotikan Plax!

**A**ro ugartan lan egina da Laxaro Azkune. Hil honetan berari egokitu zaio Erotikan Plax!-eko kideen galderei erantzutea.

**Aurkezlea, gai-jartzailea, idazlea, kulturzalea, Gure Esku Dagoko kidea... Nolakoa da Laxaro Azkune?**

Euskal Herri bizi bat nahi duen pertsona, martxan diren dinamikan alea jartzen saiatzen dena.

**Haurtzaroan, nola bizi izan zenuen sexualitatea?**

Etxean gai tabua zen. Sexualitatea ugalketarekin lotzen zen orduan, eta guk baserrian animaliei esker ikasi genuen zer zen hori.

**Ekainaren 10eko giza katean herri libre bat aldarrikatu zen. Sexualitatean zer dago gure esku?**

Geure buruan ditugun tabuak gainditzea, naturaltasuna lortzeko. **Sexualitateari buruzko herri galdeketa, zer galdetuko zenieke herritarrei?**

Norbera prest al dagoen lehenik bere burua osotasunean onartzeko, eta ondoren ingurukoak.

**Bertsolaritza adina aldatu al da sexua?**

### LAXARO AZKUNE



Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza: Sindikatu Zaharra, 2. solairua  
www.azpeitikoudala.eus/sexu 688897920  
Hitzorduak, uztaila: hilaren 11n, asteazkena, (16:00-19:00).

Adina. 68 urte.  
Herria. Azpeitia.  
Bizitokia. Azpeitia.  
Lanbidea. Jubilatua.

Pauso garrantzitsuak eman dira, asko aurreratu da. Presentzia hartu du, eta aniztasunak lekua du. Noski, praktikan bada zer hobetu oraindik.

**Zer gai jarriko zenike hiru belaunalditako emakumeei?**

Nola bizi duten orgasmoa.

**Sexualitatean, idatzitako bertsoak ala bat-batekoak?**

Biak. Bat-batekoak inpaktua sortzen du, baina pentsatu eta ondo esandakoa ere ederra da!

**Zer behar da plazan gustura sentitzeko?**

Aurrena, ausardia. Eta pauso hori emandakoan, norbere buruarekin konfiantza.

**Zer bertso berotu zaitu gehien?**

Bertsoak baino kantuak esango nuke. Udako ilunabar fresko batean, gustuko lagunarekin kantu eder bat entzuteak.

**Bertso doinu sentsual bat?**

Gazteak ginela Xabier Leteren

abesti bat kantatzen genuen: “Gauetz bakardadean...”

**Aita edo irakasle izanda, sexualitateari lotutako kuriositateari bai?**

Ikasleekin sexualitatea lantzea erabaki genuen, eta hala esan zidan guraso batek: “Mesede ederra egin didak!”

**Jolaserako beharrezkoa da?**

Gogoia.

**Zerk zirikatzen zaitu?**

Usainak.\*



# 25 urte, eta aurrera

Orkatz kultur elkarteak mende laurdena bete du aurten. Urteotan ibilbidean une zail bezain ederrak bizi izan dituzte; irudietan, batzuk. 📌📷 Ane Olaizola

---





### ▲ **LIBRE ETA ZABALIK.**

Ireki zutenetik gaur arteko bidean "hainbat oztopo" topatu badituzte ere, 25 urteko ibilbidea "aberasgarria" izan dela diote Orkatzeko kideek. Elkarreak aurten mende laurdena bete duela eta, denetarik ekintzak egin dituzte urtea hasi zenetik. Ekainean borobildu zuten egitaraua, urteurren festarekin. Argazia Orkatzeko bazkarian ateratakoa da.



### ◀ **HUTSUNEAK BETETZEKO LEKUA.**

1993ko ekainaren 23an zabaldu zituen arteak Orkatz kultur elkarteak. Kultur arloan hutsuneak zeudela ikusita, "ezkerreko hainbat lagun" biltzen hasi zen, zituzten kezkekin eta mundu ikuskerarekin bat zetorren leku bat sortzeko asmoz. Erdikalean ireki zuten lokala, eta denetarik kultur ekintzak egin dituzte ordutik bertan. Kultur elkarte ez ezik, taberna ere bada Orkatz hastapenetatik, eta hamaika izan dira barraren atzean lanean aritu izan diren lagunak.



### ▲ **GARAI ZAILAK.**

2006an herriko tabernen ondasunen inbentarioa egitea agindu zuen Espainiako Auzitegi Gorenak, eta agindu horri erantzunez, Ertzaintza Orkatzera sartu zen urriaren 26an. Gorenak esan zuen "Batasunaren legez kanporatzea guztiz gauzatzeko ezinbestekoa" zela ondasun horien likidazioa egitea. Berehalakoak izan ziren erreakzioak. Orkatz kultur elkarteak gertaera hura "Euskal Herriaren alde dauden eragileen aurkako erasoaldia" izan zela salatu zuen. Gorenaren erabakia gaitzesteko, Orkatz atarira hurbildu zen hainbat herritar, eta tentsio uneak izan ziren. Epaileek ezin izan zuten frogatu herriko tabernak Batasunarenak zirela.



### ▲ FESTETAN ERE ALDARRIA KALERA.

Lehen Amnistia zen taldea Herrira deitzen da gaur egun, eta sansebastianetako danborradarako prestaketa guztiak Orkatzen egiten dituzte. Danbor-jotzaileak bertan elkartzen dira festa hasi baino lehen, eta handik abiatzen dira desfilera. Euskal presoen, iheslarien eta deportatuen aldeko aldarriak zabaltzen dituzte festaz gozaten duten bitartean.

### ► BILGUNEA.

Herriko zenbait kuadrillen bilgune ere izan da Orkatz sortu zenetik, eta lagun artean kultur elkartean hitz emandako apustu bat baino gehiago ere egin dituzte. Lagun giroan jokatu izan dituzte horietako asko, eta ikusmin handia piztu izan dute. Gogoangarria izan zen, esaterako, 2005ean Gaizka Otamendik eta Orhantza Alegriak Loiolako Inazio Hiribideko zelai batean jokatu zuten sega apustua.





### ▲ **ERAGILE ERE BAI.**

Orkatzek herritar ugarirekin du harremana, baita beste hainbat kultur eragilerekin ere. Azpeitiko Kultur Mahaiko kide ere bada kultur elkarteak. Orkatzen egoitza Erdikalean dagoen arren, herriko beste hainbat tokitan ere egin izan dituzte ekintzak. Argazkian, Porrotx kalejiran.

### ▲ **MUSIKARI GAZTEEN PLAZA.**

Kultur elkarteak izanik, poesia emanaldiek, hitzaldiek nahiz bertso saioek ez dute hutsik egin Orkatzen; eta zer esanik ez kontzertuek. Zuzeneko musika emanaldi askoren lekuko izan da Orkatz, eta gazte askoren lehen plaza; tartean, herriko musika taldeena.

### ▶ **EPAIAREN AURREAN, ERRESISTENTZIA.**

2014ko uztailaren 30ean jakinarazi zuen Espainiako Auzitegi Nazionalak 'Herriko tabernen' auziaren epaia. Hogei auzipeturentzat hiru urtera arteko espetxe zigorrak eta 103 herriko taberna konfiskatzea agindu zituen auzitegiak –tartean Orkatz–, "ETAren egitura finantzatzea" egotzita. Taberna horien jabetza Espainiako Estatuarena da orduz geroztik. Auzitegi Nazionalaren erabakiaren aurrean desadostasuna agertzeko, hainbat mobilizazio jendetsu egin zituzten herrian. Irudian, erresistentzia irudikatzeko herri harresi bat irudikatu zuten dozenaka lagunek Orkatz atarian.



# HAIZEA EGIGUREN IRIARTE ETA EDURNE MENDIZABAL TOLOSA

Sexologian eta hezkidetzan adituak

“Kultura erotikoko berri bat sortu beharra dago”

Arremanitz kooperatibako Harremonak programan lan egiten dute, sexuen hezkuntzan. Hezkidetzako proiektuak hamar urte beteko ditu aurten. 📝📍 Ihintza Elustondo

**H**ainbat herritarrekin nahiz eragileekin sexuen hezkuntza lantzen dute Haizea Egigurenek eta Edurne Mendizabalek, Azpeitiko Udalak sustatutako Hezkidetzako proiektuaren barruan. Arremanitz kooperatibako Harremonak programako langileak dira, eta haien arabera, “guztiei esker hezkidetzako gero eta egitasmo integralagoa” bilakatzen ari da. **Zer eta norekin lantzen duzue?**

Guretzat protagonistak gazteak dira; horregatik, haiek dauden eremuetan lan egiten dugu. Hezkuntza komunitatea da ardatza, eta, hortik abiatuta, lanketak herriratzten saiatzen gara, herriko eragileekin nahiz kolektiboekin elkarlanean. Uste dugu garrantzitsua dela herri guztiari begirako egitasmo integra-

lak garatzea, modu batera edo bestera, denok garelako hezitzaileak. Hiru zutabe lantzen ditugu: hezkidetzako, sexuen heziketa eta tratatu onak.

**Zer da zuen proiektuaren bidez lortu nahi duzuen?**

Jendartea eraldatzea. Tratu txarren eta indarkeria matxistaren prebentziorako programa bat da, bizi-kalitatea hobetzea eta parekidetasuna sustatzea helburu dituena. Tratu onak dira hori lortzeko bidea; izan ere, gure ibilbidean ikusi dugu askoz ere eraginkorragoa dela prebentziorako tratatu onetan entrenatzea, zer ez den egin behar esatea baino.

**Helburu hori lortzeko, zer ildo lantzen dituzue?**

Lan ildo nagusiak formazioa nahiz sentsibilizazioa, aholkularitza eta

|||**DATUAK**|||||||

|||**Izen-abizenak.** Haizea Egiguren Iriarte. |||**Jaio.** 1984ko abuztuaren 23a. |||**Herria.** Azpeitia. |||**Bizitokia.** Azpeitia. |||**Lanbidea.** Sexologian eta hezkidetzan aditua.

|||**Izen-abizenak.** Edurne Mendizabal Tolosa. |||**Jaio.** 1972ko maiatzaren 22a. |||**Herria.** Hernani. |||**Bizitokia.** Hernani. |||**Lanbidea.** Sexologian eta hezkidetzan aditua.

saretzea dira. Batetik, eskoletan hainbat saio egiten dugu gazteekin, irakasleekin eta gurasoekin, haiei aholkularitza zerbitzua eskainiz. Bestetik, herri hezkidetzaille-

go baten alde, gazteen bizitzen parte diren eragileak inplikatzeko saiatzen gara. Horretarako, eragileekin elkarlanean ari gara, bakoitzak bere eremuan eta elkarrekin sor ditzakegun sareak ehuntzen. Guztiak biltzen dituen Hezkidetzako Foroa dugu, eta bertatik hainbat egitasmo bideratu dugu: besteak beste, jolastokiak eraberritzearen egitasmoa. Horrez gain, Plax! sexu eta aholkularitza zerbitzua eskaintzen dugu, helduek dituzten kezak argitzeko. Ikusten genuen herrian hutsune bat zegoela sexualitateaz lasai hitz egiteko, eta aholkularitza bideratutako zerbitzu profesionala eta konfidentziala eskaintzen hastea erabaki genuen, udalarekin batera.

**Gazteen artean autoantolaketa taldeak ere sustatzen di-**



Mendizabal eta Egiguren autoantolaketa taldeek margotutako irudi baten aurrean.

### **tuzue. Zer lantzen da talde horietan?**

Guretzako oso garrantzitsuak dira autoantolaketa taldeak. Eskoletan saio puntualak egiten ditugu, baina, horrez gain, adin tarte batean gazteei aukera ematen diegu, dituzten nahien eta beharren arabera, hainbat gairen inguruko lan-  
ketak egiteko beraien aisialdian, eskola orduetatik kanpo. Talde horietan gazteak dira subjektuak, eta gure lana da beraien ondoan egotea. Ikasle baten aurkako eraso bat gertatu zelako jarri genuen autoantolaketa proiektua martxan, eta

aurten bost urte dira horrekin lanean hasi ginela. Egun, eskola bakoitzean talde bat dago, eta denetarik lantzen dute: maitasun erromantikoa, indarkeria matxista, edertasun ereduak, ligoteoa... Esaterako, autoantolaketa taldeetan egon diren zenbait kidek taldean antolatzen jarraitzen dute gaur egun ere; kontzientzia hori hedatzen jarraitzen dute: Basanderiek asanblada feministako kide dira batzuk, beste batzuek Emakumeen Txokoko eskaintzetan parte hartzen dute... Bakoitzari modu ezberdinean eragin dio egindako lanak.

### **Emakumeek bakarrik parte hartzen al dute talde horietan?**

Eskoletan, adin tarte batean batez ere, genero rolak lantzen ditugu gazteekin, eta banatuta egiten ditugu saioak neskekin eta mutilekin. Mutilekin lantzen dugu zer mutil eredu zurruna daukagun jendarte honetan, eta beste era bateko mutila izateko baldintzak eskaintzen dizkiegu: negar egin daitekeela, gertukoak izan, afektua adierazi... Emakumeekin indarkeria matxistak non kokatzen gaituen lantzen dugu, eta horretaz hausnartzen

dugu, ahalduntzeko helburuarekin. Guztiei proposatzen diegu autoantolaketa taldeetan parte hartzea, baina mutilei gehiago kostatzen zaie animatzea. Izan ere, mutilek nolabait jendarte honek transmititzen dienaren aurka antolatu behar dute, eta ez da erraza erresistentzia horiek haustea eta pribilegioak galtzea. Horretan badugu erronka potolo bat.

### **Parekidetasuna lortzeko bide horretan, zein izan beharko litzateke gizonen rola?**

Garrantzitsua da mutilei eta gizoni esatea parekidetasunarekin asko dutela irabazteko. Berdintasunaz edo feminismoaz hitz egitean, haietako asko akusatuak sentitzen dira, eta, horregatik, uste dugu gizonentzako erakargarriak diren proposamenak asmatu behar direla. Gizon sentsibilizatuak horretan inplikatzeko garrantzitsua da. Parekidetasunarekin mutilek ere asko dute irabazteko, beren bizitzako esparru guztiak normaltasunez garatu ahal izango dituztelako. Kontua da mutila edo gizona izatea homofobiarekin lotuta dagoela. Mutilei beti esan diete: "Ez egin negar". Mutil batek 'marika' bat ez izateko emakume baten antza ez duen zerbait izan behar du. Homofobiaz ari garenean, badirudi praktika homofilikoak dituzten pertsonen ari garela, baina homofobiak denoi eragiten digu, eta, batez ere, mutil eta gizon guztiei, zurruntasun horretan sartzen dituztelako. 'Marikak' ez izateko, maskulinoak izateko estrategiak eraikitzen dituzte mutilek txikitatik, baina maskulinoa izateak esan nahi du zure bizitzako esparru batzuk alde batera uzten dituzela, eta ez zaude la konektatuta zurekin eta jendarteak zuek espero duen hori egiten ari zarela. Horrek sekulako kaltea eragiten du, eta, alde horretatik, erronka handia daukagu. Jendarte ez parekide honetan denok daukagu irabazteko.

### **Zer kezka dituzte egungo gazteek?**

Gazteak jendartearen ispilu argia dira. Gazteek onartuak izatea nahi

dute, eta, horregatik, gizarte hone-tako arauak muturrera eramaten dituzte: eredu maskulinoa, femeni-noa, patriarkala, heteroaraua, sexualitate eredu koitozentrista, genitalizatua, bikote araua... Gazteez hitz egitea interesgarria da, baina horren oinarrian jendarte eredu bat eta harremantzeko eredu bat daude. Telebistaz nahiz Internetez jasotzen dituzten ereduak imitatu nahi dituzte gazteek, eta eredu zurrun horrek presioa sortzen du. Horren arabera kezkak izan ohi dituzte gazteek.

### Zer nolakoak, adibidez?

Gazteen ohiko galdera zera izaten da: "Lehen aldiak mina egiten al du?". Galdera hori egiten dute heteroaraua eta eredu koitozentrista barneratu dutelako. Bizi dugun eredu horretatik abiatutako galderak egiten dituzte: edertasunaren inguruko kezkak dituzte, ligatzearen ingurukoak, bikotea izan edo ez izan, zer nolako harremanak izan behar diren, nola ulertzen den maitasuna, amodio erromantikoa... Horiek dira beren kezketako asko. Gu eredu horri indarra kentzen eta abanikoa zabaltzen saiatzen gara, aniztasuna ikusarazten. Badirudi jarraibide bat dagoela: ez dakit zenbat urterekin muxu eman, gero bikotea izan, ezkondu, umeak eduki... Bide hori da ikusten dugun bakarra, eta askoz ere aukera gehiago daude. Helduek aurkeztu dituzten dizkiguten akats guztiak azalerraten dituzte gazteek, baina, finean, denoi eragiten digu eredu honek.

### Gazteen kezka antzekoak dituzte helduek ere, beraz.

Gazteek muturrera eramaten dituzte gauzak, eta hori ederra da, kontu horiek lantzeko aukera ematen duelako. Helduok, berriz, gehiago makillatzen ditugu gauzak. Jendarte eta harreman eredu honek esaten digu zer nolako neska edo mutila izan behar garen; harremanak koitozentristak, heterozentristak eta genitalizatuak izan behar direla; gazteak, ederrak eta normalak izan behar dugula... Gehienok eredu horretatik kanpo

gaude, eta gutxiengoaren eredu irreal horretan egon nahi izateak mina sortzen du. Horrek guztiak eragiten duen mina da egungo jendartearen kezka, horrek ez baitu ongizatea sortzen.

### Oro har, jendea ez da oso ondo bizi?

Dezente hobetu daiteke.

### Gaur egun, feminismoa hartzen ari den indarrarekin, badirudi gauzak asko hobetu direla.

Zalantzarik gabe, eta ari gara hobetzen. Feminismoak lan handia egin du zentzu horretan. Oraindik feminismoak badu batzuen artean konnotazio negatibo bat, eta guk beti garbi esaten dugu borroka historiko indartsu bat izan dela eta horri esker gaudela gauden lekuan. Horri esker, aniztasuna tokia hartzen ari da pixkanaka. Ikusten dugu gazteen artean gero eta aniztasun handiagoa dagoela, eta helduen artean badagoela oraindik zer hobetu. Gazteak ari dira nolabait aniztasun hori ikusarazten jendartearen: gero eta lesbiana eta gay gehiago ikusten da kalean nahiz eskoletan, esaterako. Baina oraindik ere homofoboak eta transfoboak izaten jarraitzen dugu jendartearen, eta gazteek baino arazo handiagoa dugu helduok zentzu horretan.

### Hainbat herritarrekin sexualitatearen gaia lantzen ari zaren zere. Behar beste hitz egiten al da sexualitateaz gaur egun?

Ez. Eta hitz egiten dena aipatutako eredu horren bueltan izan ohi da. Ez da kontatzen norberak zer sentimendu dituen, zer desio, zer muga, zer zailtasun... Gazteek askotan esaten dute: "Baina nire gurasoek ja badakite dena, hiru seme-alaba dituzte eta". Hiru sarketa egin dituztelako ja badakite dena? Pentsa zer ari garen transmititzen. Ez da hitz egiten naturaltasunetik, aniztasunetik, patxadatik... Kalitatea falta da. Txiste asko egiten dira, topikoak bota... Urteetan egindako ibilbidean ikusi dugu hutsune handi bat dagoela: nesken sexuali-

“sexu heziketan inork ez digu argi hitz egiten, soilik pornografiak”

“nabarmena da zer behar dagoen egindakoarekin lasai egoteko”

tateaz ez da hitz egiten. Ez da hitz egiten gure plazerari buruz, orgasmoari buruz, emakumeen masturbazioaz... Ez dugu esaten norberak bere esperientzia kontatu behar duenik, intimitatea erabat errespetatuz ere hitz egin daiteke. Baina esplizituki tokia egin behar zaio horri. Behar hori ikusi genuen, eta horregatik sortu genuen *Alu Ulu* antzerki foroa, oso agerikoa delako emakumeen sexualitateaz argi hitz egiteko dagoen beharra, lasai eta xume.

### Patxadaz hitz egitea falta da?

Adibide bat jarriko dugu. Nik, agian, pertsona batekin zerbait nahi dut, eta edozein modutan esaten diot, parrandan... Eta, horrela, bakean lagatzeko esango dit. Baina hori ezin al daiteke jolas bat izan? Beste modu batera esan diezaiokegu gustuko dugula, eta berak esango dit: "Gaur ez dut nahi, baina eskerrik asko!". Karga eta tabu ugari dago gizartearen, eta dena txarrera egiten dugu. Hori aldatzeko, kultura erotiko berri bat sortu beharra dago. Ari gara proiektu berriak asmatzen saiatzen: zer egin dezakegu eredu xume, natural, umoretsu, osasuntsu eta aberats bat eraikitzeko? Hobeto ligatuko genuke eta hobeto sentituko ginatke denok. Zer ez den egin behar asko esan digute, baina zer da egin nahi duguna? Eredu positiboak falta zaizkigu.

### Jendeak ez daki nola jokatu?

Indarkeria matxistaren eragina izugarria da jendartearen, eta beldur handia dago. Argi dago eraso sexistekin erantzun zuzenak eman



Egiguren eta Mendizabal, plazan..

behar direla. Kalean, feminismoei esker erantzun tinkoak ematen ari gara, eta administrazioak baliabide asko jarri behar ditu; herritar guztiok inplikatu behar genuke horretan. Guk lantzen duguna da zer egin behar den halako egoeretara ez iristeko. Prebentzioa da bidea, eta horretarako tratu onen kultura erotiko berri bat sortzea beharrezkoa da. Nabarmena da zer behar dagoen egiten dugunarekin lasai egoteko, komunikatzeko, ezetz esateko, gure gorputzarekin konektatuta bizitzeko, gure gorputza den bezala onartzeko, disfrutatze... Oso mingarria da eredu hau.

### Zer dira tratu onak?

Indarkeriari aurre egiteko, norberak bere burua zaintzetik hasi behar du. Nik neure burua zaintzen eta errespetatzen badut, hori transmitituko diet ingurukoei ere,



eta hori zabaltzen joaten da. Aldiz, neure burua ez badut ondo tratatzen, albokoa ere ez dut ondo tratatuko, eta energia negatibo edo indarkeria hori zabaltzen joaten da. Txarra hedatzen den bezala hedatzen da ona ere. Horregatik da hain garrantzitsua tratu onetan entrenatzea. Jendarte patriarkalari eta sexualitate eredu honi indarra kentzea eta kultura erotik berri bat sortzea da helburua. Eta noski, onartezinak diren ekintza guztiei erantzun publikoak eman behar zaizkie; batek ez du bestea kentzen.

**Indarkeria matxistaz hitz egiten da, baina ez hainbeste horrek sexualitatearen duen eraginaz. Zertan eragiten du?** Jendarteak sexualitateaz ulertzen duena eta berez sexualitatea dena ez dira gauza bera. Genitalekin egi-

ten diren praktikak direla sexualitatea uste dugu, baina sexualitatea hori baino gehiago da: gu izate sexuatuak gara, eta ditugun bizipenek nahiz harremanek osatzen dute sexualitatea. Eta indarkeria matxista existitzeak ere asko esaten du harremanak ulertzeko dugun moduz. Horrek denak praktika erotikoetan eragina du? Noski baietz: beldur gara gure proposamenak egokiak ote diren, baietz esaten badut gaizki eta ezetz esaten badut ere bai... Ez dago lekuri sanotasunerako eta gozamenerako. Gure harreman erotikoetan ere botere harremanak daude, eta horiek kudeatzen sekulako lana dago.

**Plax! sexu eta bikote aholkularitza zerbitzua eskaintzen duzue. Erraz eskatzen al du jendeak laguntza?**

Horrelako zerbitzuak ez dira batere errazak; izan ere, badirudi sexologoarengana doan arazo bat daukala. Eta hori ez da egia, zailtasunak eta egokitu beharrak denok ditugu gure bizitzako hainbat faseetan. Eta sexologoarengana joaten denak arreta jartzen dio kezka horri, eta konponbide bat bilatzen saiatzen da. Hori beti da ona. Garrantzitsua da horrelako zerbitzuak publikoak izatea; bestela, dirua duenak bakarrik izango du halako zerbitzuak jasotzeko aukera eta. Zentzu horretan, Azpeitiako Udala erreferente da: gure ustez, prebentzioan inbertitzea baliabideak aurrezteko da.

**Saio horietan, zer kezka nabaritu dituzue, batez ere?**

Denetik etortzen da, adin ezberdinetako jendea eta askotariko kezkek dituztenak. Baina gugana

jotzen duten askok bikote gatazka dituzte. Erantzun sexualen inguruko kezkekin etortzen dira batzuk: "Ezin ditut orgasmoak eduki, sarketan mina hartzen dut, erekzioarekin arazoak ditut...". Baina beste-lako kezka ere izan ohi dituzte: gaixotasunen bat izan dezake bietakoren batek, seme-alabak izan nahi dituzte eta ezin dute, bietako batek istripua izan du eta behar bereziak ditu orain... Bidelagun batek asko lagunduko ligukeen mila egoera daude. Askotan, gertatzen den hori beste begi batzuekin begiratzeko duzu, eta konturatzen zara ez dagoela arazorik: gure ideiak direla arazoak.

**Oro har, ondo funtzionatzen al dute bikote harremanek?**

Badirudi bikote bat sortzen den zorian zorian bermatuta dagoela, baina guk beti esaten dugu orduantxe hasten dela dena. Badirudi bikotea berez hazten den zerbait dela, berez egokitzen den zerbait, eta bikotea landu egin behar da. Bikoteak zaintzeko kulturarik ez daukagu, orokorrean. Gure zorian zorian arduraren bikotekidea izan behar duela pentsatzen dugu, eta kontuz! Ez, gurea da arduraren. Ideia ustel asko dago: bikotea ondo badoa, zorian zorian sentitzen da jendea; eta bestela, ez. Eta ezin gara horretara mugatu; familia, lagunak... beste gauza asko daude norbere bizitzan. Nabarmena da laranja erdiaren kontzeptua bizi-bizirik dagoela oraindik. Bikotea aukera bat da.

**Inkesten arabera, hamarretik bederatzik sentitu du noizbait bikotekidea ez den beste norbaitekiko desio sexuala. Onartzen al da hori?**

Gero eta jende gehiagok hitz egin eta negoziatzen du horren inguruan, eta gero eta bikote gehiagok esperimendatzen dute. Baina oso orokorra da pentsatzea bikote harremanetik kanpoko pertsonekin ez dugula harreman erotikorik izango. Dena den, desioa eta gogo hori daude, existitzen dira, eta ederrak eta gozagarriak dira. Horiek kudeatu egin behar ditugu, baina

ustezko arau unibertsal horrek sekulako minak eta gatazkak ekar-tzen ditu. Gatazkak saihestegatik, bikoteari ezer ez esatea erabakitzen dute askok, eta horiek ez dira harreman garbiak, zintzotasunik ez dagoelako. Eta, gure ustez, pertsonak baino gehiago, gizartean hain errotuta dagoen maitasun eta sexualitate eredua da horren erruduna. Horri indarra kendu eta elkarrizkari baliabideak ematen badizkiogu, beste mota bateko harremanak ere eraiki daitezke. Guk desioaren eta plazeraren apologia egiten dugu; disfrutatzea ona da, aberasgarria eta on egiten digu. Gizarte honetako eskemak direla eta, ordea, beti gatazkaz inguratuta gaude, eta tortilla horri buelta eman behar zaio.

### Preserbatiboa gero eta gutxiago erabiltzen dela diote azken inkestek. Zer ari da gertatzen?

Informazioa egon badago, baina jarrerak landu behar dira. Denok dakigu sarketa baten aurretik kondoa jarri behar dela, baina, askotan, ez da jartzen. Horrek esan nahi du informazioa ez dela nahikoa. Horren atzean dauden balioak landu behar dira. Askotan esaten dute: "Ez zuen topatzen preserbatiboa...". Hori bada arazoa, konponbide erraza du: gainean eduki beti, eta kito. Eta ez badaukagu, beste era batera ere jolastu daiteke. Badirudi praktika erotikoa osoa izan dadin, sarketa bagin

nala ezinbestekoa dela. Ideia ustel asko dago, eta lan handia dago hori aldatzen.

### Ideia horien aurrean, zer transmititzen saiatzen zarete?

Guk gazteei azaltzen diegu zein den kondoiaren erabilera ona, baina hori baino askoz ere lanketa sakonagoa egiten dugu. Haurdun gelditzeko arriskua sortzen duen praktika bakarra da sarketa baginala, beste guztia egin daiteke ondorio hori izan gabe. Sarketarik gabe bizi gaitzke gure bizitzako garai askotan, primeran eta berdin-berdin edo gehiago disfrutatzen; izan ere, behatzak edo beste gauza batzuk zakil bat baino malguagoak dira. Gazteei sarketarik gabe ere goza daitekeela esaten diezunean, pentsatzen dute orgasmorik eta eszitaziorik gabe izango dela, goxo-goxo. Muxu ematearen hurrengo aukeratzat sarketa ikusten dute askotan, eta gu saiatzen gara hor tartean eskailera batzuk badaudela ikusarazten. Plazer erotikoa ikaragarria egon daiteke sarketarik gabe ere. Uste horiei aurre egitea da gure erronka, horrek emango baitigu patxada.

### Adinekoen sexualitatea tabu bat da oraindik ere gizartean...

Zahartzarora sekulako garai ona da sexualitateaz eta beste gauza askoz disfrutatzeke, adinekoek denbora daukatelako, lotsak

galdu dituztelako... Abantaila asko dituzte. Eta haien kezkek ere eredu koitozentrista horren ingurukoak izan ohi dira. Gorputz guztiarekin gozatzeko eta esperimentatzeko kultura hori izango bage-nu, zahartzarora urrezko aroa izan-go litzateke.

### Herriko hainbat eragilerekin ere lan egiten duzue; besteak beste, Txolarteko kideekin aritu zineten sexualitatea lantzen. Zer nolako esperientzia izan zen? Zer ondorio atera zenituzten?

Ederra. Gazteekin oso ondo moldatu ginen, baina ikusi genuen ziur aski gurasoek behar gehiago zutela. Horregatik, erabaki genuen gurasoekin zineforum bat egitea. Oso emankorra izan zen, eta ondorio orokor bat atera genuen: behar bereziak dituzten pertsonak ez zaizkigu pertsona sexuatuak iruditzen; ez zaie aitortzen sexualiterako eskubidea. Pertsonen intimitateak eskubide unibertsala izan beharko luke, txiki-txikitik irakasten dena.

### Osakidetzatik bidalitako jendea ere hartzen duzue Plax! zerbitzuan. Zer arazorekin joa ohi da normalea jendea zuengana?

Izan daiteke desio falta, orgasmoak izateko zailtasunak... Sexu hezkuntzan inork ez digu argi hitz egiten, pornografiak bakarrik. Eta pornografian zer gertatzen da? Zakil handiak daude, orgasmoak

oso luzeak dira, sekulako gorputzak ageri dira... Hori guztia gezurra da, muntaia delako. Baina ez daukagu bestelako eredu esplizitu argirik, eta jendeak konparatu eta esaten du: "Azkarregi korritzen naiz". Eta galdetzen digute: "Zein da neurri egokia? Zenbat denbora?". Eta hori ez da arazo bat ziur aski. Horregatik, eszitazioarekin jolasten irakasten saiatzen gara: ariketak egiten ditugu, praktikak, etxeko lanak bidaltzen dizkiegu... Saio gutxitan aurrerapauso ederrak egiten dituzte sarri.

### Zer gomendio emango zeniekete herritarrei?

Praktikatik eta norbere burua zain-tzetik eman behar dugu tratatu onetarako pausoa. Disfrutatzea, ondo pasatzea eta exijentziak gutxitzea garrantzitsua da. Kontziente izan behar dugu zer nahi dugun, zer den benetan garrantzitsua bizitzan, eta horri arreta jarri behar diogu, ez diogu eta batera jartzen bizi garen erritimoan. Patxada pixka bat ondo etorriko litzaziguke. Herritarrei esango genieke beren buruari denbora eskaintzeko, inguruaz gozatzeko, ausartak izateko eta dauden proposamene-tan –mobilizazioak, deialdiak, formazioak– parte hartzeko, Plax!-era inguratzeke, proposamenak egiteko... Gauza bera Harremona-ki dagokionez: guztion ekarpenak, desioak eta nahiak garrantzitsuak iruditzen zaizkigu, denok baitaukagu asko irabazteko.\*





# Ama eta hizkuntza

**A**ma hizkuntza dut bigarrenengo ama. Amaren sabel barruan nengonetik, amaren ahotsaren doinua izan da niretzat ama hizkuntza. Amaren ahotsaren doinua den ama hizkuntza izan da belarriak laztanduz lotaratzten ninduen kantaren doinua. Amaren doinua den amaren hizkuntza izan da hortzik gabeko ahotik irten zitzaidan lehen doinua... Eta horrela itsatsi zitzaidan ahoan, belarrietan, azalean, bihotzean, ni naizen horretan nahasi zen eta neureganatu ninduen arte.

Ama hizkuntzarekin egin ditut lagun minak. Ama hizkuntzarekin abestu ditut ahotik bihotzera eta bihotzetik ahora mugiarazten nauten euskal kantak, bertsoak. Ama hizkuntzarekin konkistatu izan ditut besteen bihotzak. Ama hizkuntzarekin ulertzen dut mundua eta maitatzen dut nire ama lurra. Ama hizkuntzari esker naiz, ama hizkuntzari esker gara, ama hizkuntzari esker izango gara.

Modu naturalean eta oharkabean bizi dut nire ama hizkuntza. Berari esker naiz naizena eta agertzen naiz naizen moduan. Berari esker adierazten dut, azaltzen naiz eta aurkezten naiz mundura. Dibertigarraia zait nire herritik kanpo besteen belarrietan duen bitxikeria, sortzen duen jakin-mina, sortzen dituen isiluneak... Hitz egin eta ulertzen ez zaituzteneko jolasa!

Harrotasuna sortu izan dit besteen jakin-mina asetze aldera, hitz eginez jaso dudan arretak; tristura, aldiz, hori dena ulertzen ez dutenen hormak. Tristura, ama hizkuntza txiki ikusarazi nahi izan didatenean. Tristura ama hizkuntza itotzear dela diotenean. Amorrua ulertu arren, ulertzen ez nautela diotenean...

## Borrokaaren zentzua

Nekagarria da ni egiten nauen ama hizkuntza nabarmentzea, niretzako naturala dena bereiztea. Beharrezkoa dela ulertzen dut, ordea, horren alde egin beharreko borroka. Naturaltasunetik urruntzearen ariketa beha-



||||||| olatz aguado |||||


||| Ama hizkuntzari esker naiz, ama hizkuntzari esker gara, ama hizkuntzari esker izango gara

rezkoa zaigu euskaldunoi: gure-gurea dugun ama hizkuntzaren sabeleko doinuak berreskuratzeko; euskal kantuek zergatik eragiten diguten jabetzeko; ama hizkuntza are eta gehiago maitatzeko, barneratzeko, harrotzeko, zaintzeko...

Aitortu beharra dut antzeko zerbait gertatzen zaidala nire generoari dagokionez. Naturaltasunez bizi dut, agertzen naiz eta jolasten dut. Baina, batzuetan, gaurko egunez bezala, nire generoaren alde borroka egitea ere tokatzen zait.

Paradoxa izan daitekeen arren, nirea ez den ama hizkuntza dutenen gerturatzeak eta euskara bere egin nahi dutenek ematen diote zentzua borrokari. Edo nire generoa ez dutenek nirearen aitortza exijitzeko bat egiten dutenean du zentzua borrokak!

Naturan gertatzen den moduan, asunak menta belarra du ondoan, batak bestea sendatzeko ahalmena baitu. Beraz, ez dezagun naturaltasuna gal behintzat! Hori gertatzen bazaigu, ama izatetik itsatsitako zerbait izatera pasatuko litzatekeelako, urrutiko tarteko bat izatera, hobeto ulertzeko.\*



# Urre berdea marroi

Azpeitiko eta bueltako mendien itxura aldatzen ari da pixkanaka. Intsinis pinua gaitzak jota, orain arteko basoek beste batzuei utziko diete tokia. 📝📍 Mailo Oiarzabal

**M**otozerren oihartzuna, hutsik igo eta enborrez beteta jaisten diren kamioi handien joan-etorri etengabea, egunaren arabera lokatzez beteta edo hautsez josita dirauten zikindutako bideak eta errepedeak. Lehen noizean behingoak zirenak, azken bizpahiru urteetan egunerokoaren parte bihurtu dira horiek guztiak Azpeitia inguruko hainbat gunetan. XX. mendearen erdialdetik hona hemengo paisaian nagusi izan den intsinis pinua (*Pinus radiata*) gaitzak jota dago, eta pinu sailak hustu eta hustu ari dira. “Azken hiru urteetan ari dira pinuak modu masiboan ateratzen, eta beste hiru-lau urtean bota beharreko pinu pila bat dago”, dio Julian Unanuek (Oñatz, 1948). 1999tik 2003ra eta 2011tik 2014ra Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mendietako zuzendaria izan ondoren, baso jabeen Gipuzkoako Baso Elkartearen Urola Kostako ordezkaria da gaur egun Unanue. Hamarkada baten buruan, Urola bailaran intsinisik ia ez dela geldituko dio.

*Mycrosphaerella dearnessii* izeneko onddoa, pinudiei azken urteetan hartu duten kolore marroixka ematen diena, da intsinisaren akaberaren erantzule nagusia. Pinu hostoetan itsasten da gorrina, eta urte gutxiren epean ito egiten ditu zuhaitzak, usteldu arte. “Pinuak, zainetik jateaz aparte, orritik ere jaten du, arnasa hartzen du hortik. Orririk gabe ezin da bizi arbola hau, ez da-eta hosto

## |||BASO PUBLIKOAK|||||||

“Eukaliptoak ez dut famatuko eta nik ez diot inori gomendatuko”, dio Unanuek, nahiz eta berak badituen eukaliptoak, “haritzak, pagoak eta pinuak ditudan bezala Haritza eta pagoa jartzen badituzu, badakizu horien epea 140 edo 200 urte direla. Etekin ekonomikorik ez diezu aterako; zuk ez, eta zure ondorengoek ere ez. Hautatu behar horretan jarrita, ez dut uste eukalipto zalea den inor dagoenik, baina kalkuluak aterata...”.

Horren aurrean, berez hemengoak diren zuhaitzen basoak berreskuratzeko “bi alternatiba” daudela uste du: pagoak, haritzak eta abar jartzen dituzten baso jabeak diruz laguntzea, edo administrazioak berak lurra erostea eta baso publikoak hedatzea. “Urolan orain ere badago hektarea pila bat salgai, inork erosi nahiko balu”, nabarmendu du. Mendi lur gehienak pribatuak direla gogoratuta, “basoa denona dela” diotenena uste okerra da, eta jabeei gehiegi-txo eskatzea ere bai, Unanueren aburuz: “Ezin zaio inolaz esan ‘hik jarri ezak, eta, gainera, denona duk hori’. Horrek ez dauka etorkizunik”.

erorkorrekoa”, azaldu du Unanuek. Udaberrian eta uda hasieran onddoaren eragina ez da izaten hain nabarmena, “pixka bat berdetu” egiten dira atzera pinu hostoak oso gaixo ez badaude; baina abuztutik aurrera, gutxi gorabehera, berriro indartzen da gorrina.

1944an aurkitu zuten lehen aldiz onddo klase hori Euskal Herriko basoetan, baina azken urteetan bezalako indarrak ez zuen sekula hartu. Izurri bihurtzeraino zabaldu da, eta izurritearen erdigunean kokatu da Urola bailara. “Orain dela zortzi bat urte, Errezil eta Etumeta inguru horretan azaldu ziren plaga guene indartsu batzuk, eta gero hortik denera joan da zabaltzen. Espero ez den eboluzio bat ematen ez bada, inguru hau galdutzat eman daiteke”, Unanueren arabera. Izan ere, ikerketak egiten ari diren arren, ez dirudi epe motzera gorrinari aurre egiteko erremediorik topatuko dutenik. Gaitza horrenbeste zergatik indartu eta zabaldu den ere ez dute zehaztu, oraingoz.

Gorriak jotzen duenean, “basoa ateratzea da irtenbide bakarra”, zuhaitz guztiak usteldu baino lehen. Gaitzik ez zegoenean, pinudien ohiko biziraupena 35 edo 40 urteren bueltan ibiltzen zen; horiek ziren basoak errentagarri izateko urte kopuruak. Orain, ordea, askoz pinu gazteagoak ere ari dira kentzen. “Adinera ailegatutakoak ere botatzen ari dira. Baina lau urtekoetatik hasi eta adin guztietako pila bat ari dira botatzen”. Lau



Pinua atera berri duten baso saila, Urrestillan. Antzeko asko ikus daitezke bazterretan.

urtetik beherako plantaziorik ez dagoela zehaztu du Unanuek, gorrinaren izurritea zabalitzen hasi zenetik ezin baita intsinis berririk landatu.

### Pinuari “asko zor”

Paisaia ez ezik, basoen ustiaketa eredian aldaketa handia ekarri zuen intsinis pinuak joan den mendean, baita eztabaida sutsuak piztu ere. *Bota pinua, sartu pagoa* esloganean laburbildu daiteke 1970eko eta 80ko hamarkadetan indarra hartu zuen joera, bertako espezieekin osatutako basoak berreskuratzearen eta basoen ustiaketa jasangarriagoren aldekoa. Inguru honetako mendi gehie-

nak, ordea, pribatuak dira, eta baserritar askorentzat diru iturri garrantzitsua izan da basoa. “Baserritarrak asko zor dio pinuari”, dio Unanuek, intsinisari *urre berdea* esaten zitzaion garaiak aipatuta. Azken hamarkadetan pinudien etekinak mugatuagoak izan diren arren, XX. mendearen erdi aldetik aurrera “pinuak egiten zuen prezioa gaur egun imajinatu ere ezin” dela egin ekarri du gogorra. Eta adibidea jarri du: “Orain dela 52-54 urte, hektarea bat pinurekin Azepeitian behintzat etxebizitza bat seguru zenuen”.

Intsinisaren tokian landatzen ari diren zuhaitzei dagokionez, bertan lehendik zeudenen artean pagoa eta haritza aipatu ditu Unanuek, baina baso jabeei etekin ekonomiko emango dieten espezieen zerrenda luzeagoa da. Hainbat pinu klase dago zerrendan (kriptomeria, izeia, itsas pinua..), eta eukalipto ere bai. Intsinsa baino are azkarrago –15-18 urterekin hasten dira errentagarri izaten hazten den espezie horrek intsinisak bere garaian piztu zituenak bezain kontrako jarrera sutsuak piztu ditu, edo areagoak. Gipuzkoako Foru Aldundiak intsinis basoak botatzeko zein haien tokian beste arbola batzuk landatzeko diru-laguntzak ematen ditu. Pinuaren tokian eukalipto landatuz gero, ordea, basoa kentzekoa da bakarrik laguntza, landaketa berrirako ez du ematen.\*


**Instalakuntza Elektrikoak**  
 Urko: 618 96 49 95 / Jon: 649 12 02 71  
 ikaargi@lanak@gmail.com www.ikainstelmak.com  
 20730 AZPEITIA

Corp. autoak lortze dion sorkuntzarako

**AIZPURU AUTOAK**  
 PREZIOA ERREKORRA

Tel: 943 81 23 69      aizpuru@aizpuru.net      Arrebola 17, 20730 AZPEITIA  
 Fax: 943 81 22 97      www.aizpuru.net

# Dantzan jarriko dute herria

Capoeira, euskal dantzak, areto dantzak, mutxikoak... Izango da zer dantzatu uztaileko lehen bi asteburuetan herrian. Azpeitia Dantzan egitasmoaren barruan sei emanaldi izango dira.  Julene Frantzesena

**U**ztailarekin iritsiko da Azpeitia Dantzan egitasmoa herrira. Hain zuzen ere, lehen bi asteburuetan askotariko sei dantza emanaldi izango dira herriko hainbat gunetan

Aurtengo ekimena berrikuntza nagusi batekin hasiko da uztailaren 6an, ostiralez; izan ere, Brasilgo arte martzialak eta dantzak uztartzen dituen capoeira saioa eskainiko dute Capoeira Senzala Euskadi taldeko kideek, 19:00etan hasita. Hilaren 7an, berriz, Itsasi dantza taldearen txanda izango da. Dantza tradizionalak eta abesti berrieekin sortutako koreografiak eskainiko dituzte 19:00etan, Soreasu antzokian. Uztailaren 8an, areto dantzen erakustaldia egingo dute Jose Mari Orbegozok eta bere ikasleek, 20:00etatik aurrera, Soreasun.

## III DATUAK

III **Zer.** Azpeitia Dantzan egitasmoa. III **Egunak.** Uztailak 6, 7, 8, 13, 14 eta 15. III **Tokiak.** Plaza, Sanagustin kulturunea eta Soreasu antzokia. III **Antolatzaileak.** Udala eta dantza taldeak.

Uztailaren 13an, ostirala, Sanagustin kulturunea dantzaleku bilakatuko da, eta hilaren 14an Sahatsa dantza taldeko kideek emanaldia eskainiko dute plazan. Azpeitia Dantzan egitasmoa uztailaren 15ean, igandez, bukatuko da plazan egingo dituzten erromeriarekin eta dantza jauziekin. Bi asteburutan dantzaz gozatu ahal izango dute hala nahi duten herritarrek.\*

## III AZPEITIA DANTZAN

**6 emanaldi.** Sei emanaldi desberdin izango dira aurtengo edizioan.

**6 egun.** Uztailaren 6an hasi eta hilaren 15era bitartean izango dira saioak.\*

## III BESTERIK

### 1 Ipurtargifest, Loiolan

Ipurtargifest egitasmoaren beste edizio bat izango da Loiolan. Hainbat ekitaldi izango dira, hala nola artisauen azoka, Ekaintxoren emanaldia, piknika, lago Magoren saioa, jolasak, afari begetarianoa eta Mice nahiz Pelax taldeen kontzertuak.

III **Eguna.** Hilak 8 (igandea). III **Ordua.** Egun osoa III **Tokia.** Loiolako zelaia.

### 2 Gaztetxearen 13. urteurren festa

Azpeitiko Gaztetxearen 13. urtemuga festa ospatuko dute, eta ekitaldi ugari izango da egun osoan zehar; besteak beste, baltsa jaitsiera egingo dute. Baltsak egiteko jarri duten gaia *Azpeitian zer?* da. Bazkaria eta jolasak ere egingo dituzte.

III **Eguna.** Hilak 21 (zapatua). III **Ordua.** Egun osoa. III **Antolatzailea.** Azpeitiko Gaztetxea.

### 3 Kartin eta minimotard erakustaldia

Karting eta minimotard erakustaldiaren bosgarren edizioa izango da Perez Arregi plazaren eta Damaso auzunearen inguruan. Azpeitiko hainbat gidarik parte hartuko du aurtan ere.

III **Eguna.** Hilak 21 (zapatua). III **Ordua.** 15:00. III **Antolatzailea.** AZTE.\*



Iazko Azpeitia Dantzan egitasmoko azken emanaldia Sahatsak eskaini zuen. III **Mailo Oiarzabal**

III **Azpeitiko ekimenez informazio gehiago:** [uztarria.eus/agenda](http://uztarria.eus/agenda)

# Manadak, saldoak

**M**anada izeneko gizataldekoek ezarri zaien zigorra, behin betiko epaiaren zain, baldintzapeko askatasunean betetzeko aukera izango dute. Arrazoi osoz, desosegua eta haserrea dira nagusi gure artean, arrazoimena lausotu eta lainotuz haren kikarak erretzeraino. Ez dago erraza funtsak argi eta bere lekuan edukitzea.

Lehen espetxealdia eta orain baldintzapeko askatasunaren ebazpenean erabakigarri izan den andre epailearen fede onean sinesten saiatu arren, izango zituen horretarako argudiorik eta atxiki ezin diodan zuzentasuna ere. Baina ezin. Ezin delako nire inguruetakoz zenbait girotan zalantzarik izan, eta ezin delako giro espezializatuetan iritzi bakar eta garbirik ikusi. Denetarakoak daude.

Adiskide penalista batek aurrez esaten zidan erabaki zuzen eta ohikoenak baldintzapeko askatasuna beharko lukeela. Magistraturatik bertatik ateratzen dira ahots koalifikatu askoak disparatea dela esanaz. Nahi dut nik sinetsi fede onean, baina zail da sistema den puzzle horretan pieza guztiak egokitzea.

Hemen gabiltza guztiok bakoitza bere fobia, amorratio eta berotasun eta berokeriak aireratzen, ezberdin ari zaigunari arrazoia ukatzen. Eta ez dakit. Geureganatu dugun sexukeriei, abusuei eta erasoei buruzko arbuioa sendotzea on bada, eta emakumeen duintasuna bere osotasunean bermatzea ezinbesteko, zalantzak ditut zenbait jokaerari egiten ari garen lekuak ez ote digun luzerako kaltea ekarriko.

## Jaietan gertatu omen

Gure inguruetakoz jaietan gertatu omen. Ez oso aspaldi sexu erasoaren salaketa baten jomuga izan zen mutil bati, epaitegian biderik izan ez zuen salaketa jaso zuenari, gertatua omen. Herriko plazako txosnan edaria ukatu diote handik alde egitea exijituz, argiak piztuz eta oholtzako musika taldearen kontzertua isiltasunez etenez. Jarraian gauza bera egin



|||||||ramon etxezarreta|||

|||Hemen gabiltza guztiok bakoitza bere fobia, amorratio eta berotasun eta berokeriak aireratzen

omen diote herriko taberna batean, mutilak herrikeri alde egin duen arte.

Horrelako jokabiderik ere ezin dugu onartu. Aurrez aurre, pertsonaz pertsona, pentsatzen duena esateko balorerik ez duen pertsona taldeak, besteen arteko saldoan gordez, ezkutatu, isilean eta multzoan jazarpena egiten duen jendea, ez da ezer konpondu eta bideratzeko gai, horrelako jarrerak ekarri ditzaketen ondorioak neurtzeko gai. Besteri emandako minean dute beren plazera.

Ezin ahaztu Europar azken mendeetan izan ditugun kataklismo kriminalen bezpera luzeetako jokamoldeak direla horiek, haiek ere arrazoi zutela uste izateak bultzatzen zizutela horretarako zilegitasuna bazutela pentsatzera.

Hauek, eta emakumeei sexu erasoak salatzetik merezi ez duen ustea hedatzen ari den iritzi korranteak nahastuz, ezin da sexuzko bortxaren arazo kriminal hau ez konpondu eta ez aurreikuspen neurrikerik hartu.✘



## HITZ GEZIDUNAK

	Igeri egiten du	▼	Momentu	▼	Labore mota	▼	Pl. landare mota	▼	Igarlea		
	Denboral-dia		Inbutua		Agiri mota		Irauten du				
		▶		▼		▼		▼			
	Izena	▶									
	Segaren erdian										
Deitura	▼	Jardun	▶	▼	Karta iragarle	▶					
Sendagilea		Urte honetan			Ez da euskara						
▶		▼			▼		Jardun	▶			
							Irudi geometrikoa				
Ba... baneuka	▶		Sobera gehiago	▶			Akuria	▶	▼		
Musika tresna			Zuhaitz mota				2				
▶			▼		Du, hari	▶	▼		Bokala	▶	
					Jainko egiptoarra				12		
Krustazeo mota	▶				▼				▼		
Alegiako											
▶							Interjekzioa	▶		50	▶
							Kontso-nantea			Kontso-nantea	
Zakotea	▶				Poztu	▶	▼			▼	



Egilea:  
Luma

\* Kazetari azpeitiarra

## SUDOKUA

		2		3				7
					1	6		8
8	7				2		1	
			4			7	9	
			2		8			
	9	5			6			
	4		1				5	2
5		6	3					
7				2		4		



ETXERA ERAMANGO DELAGU

*Il Partigiano*

DENDA BERRIA

SALBE 23, BEHEA Tel: 943 08 09 13

|||UZTARRIAREN LEHIAKETA: JEROGLIFIKOAK|||||

|||JEROGLIFIKOEN SOLUZIOAK BIDALTZEKO EPEA. Uztailak 18 (asteazkena) |||NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara ||| IRABAZLEARI SARIA. Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta |||PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da eta jergoglifikoaren irudien azpiko galderei erantzun behar zaie.



|||LEHIAKETAREN ERANTZUNAK|||||

**1** ZER DIRA HORIEK?  
\_\_\_\_\_


**2** ZER DA BERA?  
\_\_\_\_\_

||| BAZKIDEAREN IZEN-ABIZENAK

||| HARREMANETARAKO TELEFONO ZENBAKIA

|||SOLUZIOAK|||||

HITZ GEZIDUNAK

U	L	I	V	T	V	●	V	O	N	V	●
L	●	I	O	●	R	V	I	G	E	L	V
A	K	X	N	A	R	A	R	A	T	O	●
●	A	●	O	D	●	A	P	A	R	P	H
A	I	U	K	●	R	L	A	●	U	N	●
A	R	I	●	A	E	L	G	I	L	S	O
T	O	R	A	●	T	A	R	I	●	A	●
Z	T	I	O	K	E	N	E	●			
A	I	D	A	L	V	A	N	O	G	●	
●	Z	●	O	●	U	●	I	●			

SUDOKUA

9	5	4	6	2	9	4	3	6
5	2	6	3	8	4	1	7	9
9	4	3	1	6	7	8	5	2
4	9	5	7	1	6	2	8	3
1	3	7	2	9	8	5	6	4
2	6	8	4	5	3	7	9	1
8	7	9	6	4	2	3	1	5
3	5	4	9	7	1	6	2	8
6	1	2	8	3	5	9	4	7

AURREKO HILEKO JEROGLIFIKOAK

- 1** Eperdia
- 2** Amarruan

|||UZTARRIAREN EKAINEN LEHIAKETA|||||

IRABAZLEA



Oihana Zuazolazigorraga Uztarria Komunikazio Taldeko bazkidea da aldizkariko 207. lehiaketaren irabazlea. Kutxillo urdaitegiak emandako produktu sorta irabazi du. Irudian, lehiaketaren irabazlea Kutxilloren oparia eskuetan duela.




**Urdalazpikoak, hestebeteak eta gaztak**

Etxeko berezitasuna:  
**Ezkur urdalazpiko Iberikoa**

Eñaut: 656 79 14 19  
Oier: 618 24 01 73  
kutxillo@gmail.com  
Damao Azkue 6

## ||| BIDEOA |||||

▲ **LABETIK ATERATZEAR DA 'LEKAIME' FILMA.**

"Lan askoren ondoren", argia ikustear da Xanti Rodriguez argazkilariak ondu duen 'Lekaime' film laburra. Dagoeneko argitaratu du azpeitiarrak lanaren aurrerapen bideoa, eta egileak azaldu duenez, herritarren aurrean aurkeztu aurretik –lana Azpeitian irail inguruan aurkeztea aurreikusten du–, filma ikus-entzunezkoen jaialdietako eta sariketetako sail ofizialetara aurkezteko asmoa du. 40. hamarkadan kokatzen da 'Lekaime', "Hitlerrek Hendaia zapaldu zuen egunetan oinarritutako lana. Lantzen dituen gaien artean daude magia beltza, nazismoa eta Elizari lotutako haurren bahiketak. Grabaketa lanak Azpeitiko eta inguruetakoz zenbait txokotan egin zituztela kontatu du Rodriguezek, hala nola Esklabetan, Zelatunen, Ezkuztako harrobian eta Madariagan. Oihana Maritorea, Amaia Lizarralde eta Asier Hernandez aktoreak dira film laburreko protagonistak. ||||| **Uztarria.eus** |||||

## ||| EFEMERIDEAK |||||

1515

**Utzitako haur bat.** Herriaren aginduz, utzitako haur bat hazten ari zen emakumeari agindutakoa ordaindu zioten.

1622

**Erraldoiak.** Lehen aldiz izan ziren erraldoiak herriko festetan.

1956

**San Inazio Xoxoten.** San Inazioren irudia inauguratu zuten Xoxoteko gailurrean.

1971

**Erraila aurkitu.** Antxieta jakintza taldeak Erraila aztarnategia aurkitu zuen.

1990

**Loiolako zabalgunea.** Loiola aurreko enparantza berria eta handia inauguratu zuten uztailaren 12an.

📍 **Iturria:** Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar liburua.

||| **Egilea:** Imanol Elias Odriozola.

||| **Argitaratzailea:** Uztarria Kultur Koordinakundea.\*

**KIMU BAT GARDEN**

**Animaliontzako denda berria**

**Gure etxeko lagun iletsu, lumadun eta ezkatadunentzako eskaintza zabala!**

Urrestilla bidea, z/g. AZPEITIA



# Uda

**U**dan elikadura ezin hobeto nola zain eta ohitura onak nola mantentzen ditzaitez aztertuko dugu. Adibidez, fruta zatitu eta hozkailuan gorde dezakegu tuper batean. Modu horretan, etxeko txikiak eta ez hain txikiak beste edozer mokadutxo batzuk –opil, gozo...– egin beharrean, fruta errazago jango dute; horiei erraztu egingo diegu fruta jatea.

Dena den, fruta ustel ez dadin eta haren kolorea alda ez dadin, zatitutako frutari limoi pixka bat gehitu diezaiokegu. Horrela, gainera, nutrizio propietate gehiago gordeko dituzte frutek.

Izozkiak ere egin ditzakezu, esnea eta fruta nahasita edo azukre gabeko kakaoa gehituta. Jatordu tartetan freskatzeko modu osasungarri bat izan daiteke izozkia, eta bestelde, izozki komertzialak –azukre eta gantz ugariz osatuak– bazter ditzakegu horiei esker.

A, eta ez ahaztu egunpasa baldin bazoaz tuperra zure aliatu on bat izan daitekeela. Etxean aukera eta planifika dezakezu zure menua. Hautatu eraman errazak diren jakiak eta berotu beharrik ez dutenak.

Udak kontrol eza dakarrela burutik kendu eta erosketak eta menua antolatu behar dira. Gogoratu zapatilak jantzi eta ipurdia mugitzearekin. Izan ere, horrela ohitura onak mantendu ahal izango dituzu! Uda ona izan, eta zozatu!\*



aitziber aizpuru

# AMAIA ZABALA parafarmaziako langilea



### 1. Noiztik lanbide honetan?

Orain dela 17 urtetik.

### 2. Zer saltzen da gehien?

Higienearekin lotutako produktuak.

### 3. Eta gutxien?

Fitoterapiako produktuak.

### 4. Modek izango dute eraginik zuenean...

Izugarria.

### 5. Eguzkitako krema ala brontzeadorea?

Babestea bada helburu, krema. Estetikak axola badu, brontzeadorea.

### 6. Urte osoan babesa?

Bai, eguzkiak beti jotzen du.

### 7. Zenbateko babesa?

Handia bada, hobe. Beti ere sarri ematea komeni.

### 8. Nahikoa babesten gara?

Beti dago zer hobetu.\*

Mireia Galarza

**Xabier** margoak  
**Pinturak eta Parket Laminatuak**  
 Pablo VI, 20 - Tel: 943 15 73 25 - www.xabiermargoak.com

**IRENE ALTUNA** LOIACENDA  
 Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87  
 www.ialtiacenda.com

**Alar** merleria  
 Loiolako Iazulo Hiribidea, 9  
 Tel: 688 81 87 78

**Koh Tao**  
 OSAGARRIAK  
 Foru Iribidea, 3 • Tel: 609 681 193  
 20730 AZPEITIA (Gibuzkoa)

**uba**  
 Kalkulagilea, Itxarola, Sotabidea  
 Gestari Jantzi  
 Itxarola administrazioa  
 Gestari Inmobiliaria  
 Tel: 943 151 228 Fax: 943 151 222  
 Itxarola Kalea, 42 • Tel: 943 151 222

**KIRURI**  
**JATETXE**  
 Loiola hiribidea, 24  
**LOIOLA - AZPEITIA**  
 Tfnoa.: 943 81 00 08  
 Faxa.: 943 15 03 62

**adi** ARTE ETA DISENU ESKOLA ELKARTEA  
**Marraskia eta eskulanak** (haurrak) 17:15 - 18:30  
**Pintura** 15:30 - 17:00 (helduak) 18:30 - 20:30  
**Talla** 18:30 - 20:00  
 Jose Antonio Kalea, 3  
 943 81 28 08  
 www.adiarte.com  
 Matrikula urte osoan zabalik

**ostadar optika**  
 OPTIKAS - OPTOMETRIKAS  
 Jose de Arrieta, 17  
 Tel. 943-810654  
 AZPEITIA  
 Ibai Ondo, 28  
 Tel. 943-850445  
 AZKOITIA



1. Cuevas trajea jantzita zubi batean lasterka, 2009an.

2. Asier Cuevas lagun batekin, Arratera bidean bizikletan.

3. Cuevas Onintza Zeberio emaztearekin eta Aner eta Killian semeekin Bizkaia Zubian, Getxon.



# Lasterkaz harago

Munduari pare bat buelta emateko adina korrika egin du Cuevasek. Lasterkaria ez ezik, ingeniaria eta gastronomia zalea da. 📧 📷 Olaia Iraola

Ihes egiteko bidea, zure buruarekin egoteko unea". Hori da Asier Cuevas (Eibar, 1973) korrikalariarentzat atletismoa, besteak beste. Txiki-txikitatik gustatu izan zaio kirol hori egitea; hain zuzen ere, 6 urte zituela hasi zen eskolarteko lasterketetan parte hartzen.

12-13 urte zituela ohartu zen kirol guztietan gehien atletismoa gustatzen zitzaiola, eta kirol hori "serioago" hartzen hasi zen. Gaur egun, korrika egitea "behar-beharrezkoa" du: "Eguneroko gauzen, arazoan, lanaren, familiaren eta beste hainbat gairen inguruan pentsatzen dut korrika egitean, gogoetak egiteko aprobetxatzen dut".

Atletismoari esker, munduko hainbat leku ezagutzeko aukera izan du Cuevasek. "Gustuko dut bidaiatzea, gauza berriak ikastea eta jendearekin esperientziak bizitzea". Hark dienez, "oso bizipen onak" izan ditu lasterketak tarteko egin dituen bidaietan.

BAT Basque Teamen beka batek babes ten du Cuevas, eta uste du laguntza handia direla horrelako sostenguak. Gainera, New Balance taldeko kide ere bada, eta behar duen material guztia eskaintzen dio etxe horrek. Hala ere, behin pertsona adin batera

iristen denean eta ardura ezberdinak hartzen dituenean, uste du atletismoak ez duela "bizitzeko adina" ematen. "Beste kirol batzuetatik, futboletik adibidez, bizi daiteke. Ondo iruditzen zait futbolariek dirua irabaztea, baina nire etikari jarraituta, uste dut irabazten duten diru kopurua gehiegizkoa dela. Izan ere, Nobel Sari bat irabazten duenak baino diru gehiago jasotzen dute horiek".

Futbolzalea ez da eibartarra, baina "gustura" dago bere herriko taldea Espainiako Lehen Mailan dagoelako: "Taldea txikia eta xumea da Eibar, ordainketekin-eta inoiz arazorik izan ez duena. Gainera, klubak irabazien zati bat inguruko kirolari batzuei ematen die".

## Teknologia erronka

Atleta izateaz harago, Cuevas ingeniaria ere bada. Industria maisu ikasketak egin eta gero, Toribio Etxeberria izeneko beka lortu zuen duela hogeitun urte. Orduetik hona Eibarko Tekniker enpresan aritu da lanean, fabrikazio eta muntaien diseinuko sailean. "Makina erremintak, tresnak eta saiakuntza-bankuak diseinatzen ditut gehienbat" esan du. Une askotan "lan estresagarria" izanagatik eta askotan arazoak konpontzea zaila izan arren,



Asier Cuevas. || Basque Team

gauza berriak egitea gustuko duela azpimarratu du: "Teknologia erronkak gustuko ditut, sormen handikoak dira, eta are gusturago egiten ditut lankide onekin".

Ehun kilometro 06:35:39 denboran egiteko pertsona saiatua den moduan, bere egunerokotasunean ere pertsona arduratsua dela uste du Cuevasek. "Nire errutinan mila gauza egiten ditut, eta horiek modu ordenatu batean gauzatzea gustatzen naiz".

### Eguna "motzegi"

Cuevasen eguna 06:00etan hasi eta 23:00etan amaitzen da. Lana goizez edo

arratsaldean egiten du, eta horren arabera antolatzen ditu entrenamendu saioak: batzuetan lanera sartu aurretik, eta besteetan, aldiz, lanetik irtetean prestatzen da. Goizetako entrenamendua enpresan bertan egiten du, eraikinari birak emanez; arratsaldeetakoak, berriz, ezberdina izaten da: "Saio luzeagoak egiten ditut, aldapadun tokietan".

Egunak 24 ordu baino gehiago izatea gustatuko litzaioke korrikalariari; izan ere, egunerokotasunean lana, korrika egitea eta familia uztartzea ez dela erraza azaldu du. "Zorionez, ordu gutxitan asko deskantsatzen duen pertsona horietakoa naiz, eta horrela eguneko

orduak gehiago aprobetxatzeko aukera izaten dut".

Askotan zaila egiten zaion arren, ahal duenean bere afizio txikiei tarte egiten ahalegintzen da Azpeitiko bizilaguna, baditu-eta zaletasunak. Mendira joatea, iraupen-eskia egitea eta bizikletan ibiltzea ditu gustuko afizioak, besteak beste. "Egia esan, gehien jarraitzen dudana kirola, atletismoa eta gero, txirrindularitza da".

Kirolaz gain, badu beste hobby bat ere: gastronomia. Izan ere, sukaldaritza asko gustatzen zaio Cuevasi. "Jatorduak presatzea zein jatea, biak gustatzen zaizkit, baina jaki berriak prestatzen ikastea ere". Ardoa dastatzea ere atsegin du kirolariak, nahiz eta orain gutxira arte abstemiaoa zen. Gauzak zer diren, baina: "Aitaginarrebak erakutsi zidan ardoa edaten, eta orain asko gustatzen zait; beti ere tamainan, noski".

### Etorkizunari begira

45 urte bete ditu aurten Cuevasek, eta badauki lehenago edo beranduago atletismoko erronkak utzi beharko dituela. Hala eta guztiz, argi dauka ahal den neurrian korrika egiten jarraituko duela. Etorkizunean zer pasatuko den ez dakien arren, argi du bizitza lasaia goa izatea gustatuko litzaiokeela: "Nire familiari inguratuta bizi nahi dut, kirola eginda eta benetan zoriontsu egingo nauten gauzez inguratuta".

Bi seme ditu korrikalariak, eta etorkizunean haiek ere kirolen bat egitea gustatuko litzaiokeela adierazi du. "Dena den, beraiek zoriontsu izatea nahi dut, eta beraiek benetan gustuko dutena egitea. Edozertan laguntzeko prest izango gaituzte bai Onintza emaztea eta bai ni".\*

## BIYONA

BERRIKUNTZAK-REFORMAS

[www.biyona.net](http://www.biyona.net) / [biyona@biyona.net](mailto:biyona@biyona.net)

Erositako etxebizitza eraberritu nahi duzu?

Zer eskaintzen dugu?

Konpromisorik gabeko aurrekontua

Gremioen koordinazioa

Epeak betetzea

Erakusketa handiak

Abercaino poligonos, 2  
Tel. 943 355 016  
**Zarautz**

Santiago aztoa, 12  
Tel. 943 343 443  
**Zumai**

San Juan, 16 edif. AXBU  
Tel. 943 852 110  
**Azkoitia**

Cespede Kalea, 18  
Tel. 943 348 241  
**Zestoa**

## TELEFONO ZENBAKIAK

### TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	026069
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01
Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	0837 80
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ekoetxea	81 24 48

### OSASUNA

Anbulatorioa	0254 00
Anbulatorio larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	8144 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

### KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	8900 17
Azpeitian Zer?	080688
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemaileak)	687 60 50 06
DV (berriemaileak)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

### ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
-------	----------

## FARMAZIAK (UZTAILA)

1-10-11-18-20-24-27-31  
Alberdi (Azpeitia).  
943815974

4-9-16-21-22-25-26  
Aranburu (Azpeitia).  
943811350

### LARRIALDIAK

# 112

### ODOL-EMAILEAK

Uztailaren 23an izango  
dute hitzordua, 17:00etatik  
21:00etara, anbulatorioan.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

### KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Natuluskara taldea	661 10 44 46
Udal Euskaltegia	81 19 47
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	8165 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

### IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	8163 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

### BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

## ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Asteguna: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 UDALTZAINGOIA || Egun osoz irekita egoten da ANBULATORIOA || Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste egunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpokoak: 11:00-20:00. KIROLEDGIA || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 LIBURUTEGIA || Astegunak: 09:00-13:00, 15:30-20:00 || Larunbata: 09:00-13:00 || Ekaineko azken astean, uztailan, abuztuan: 08:30-14:00. Abuztuko lehen hamabostaldian itxita. GAZTELEKUA || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

## ERABILGARRI



### IGERILEKUA, IREKITA.

Aurtengo abuztuan ere zabalik izango dira igerilekuko gimnasioa eta saunak, Kirol Patronatuak hala erabaki duelako. Nahi duenak, beraz, erabilgarri izango ditu gune horiek uda sasoi guztian.

3-6-13-19-23-28-29-30  
Arrieta (Azpeitia).  
943811274

GAUEZ, URTE OSOAN  
Alberdi (Azpeitia).  
943815974

## GARRAIOA

ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegi osoa:  
[www.uztarria.eus/azpeitia/](http://www.uztarria.eus/azpeitia/)  
autobusak

# ARANTZA LASA

gozotegiaren jabea

“ Herritarren artean, txokolatea saltzen da gutxien ”

Familiakoen laguntzarekin, 18 urte besterik ez zituela ireki zuen gozoki denda Arantza Lasak. Ez du imajinatzen bere bizitza dendarik gabe. ✍ Mireia Galarza

**N**oiz eta zergatik ireki zenuen gozoki denda?

1983ko maiatzaren 25ean ireki nuen, orain dela 38 urte. Igerilekua ere data horren inguruan zabaldu zuten, eta gozoki denda irekitzeko aukera polita izan zitekeela iruditu zitzaidan.

**Zein da hainbeste urtetan irauteko sekretua?**

Gakoa bezeroak ondo tratatzean dagoela uste dut.

**Lan gogorra al da?**

Pazientzia behar da. Alde batetik, asteburuetan ere dendan egon behar izaten dudalako, eta, bestalde, eskuluze batzuk ere ibiltzen dira, eta uneoro begiratu behar zaie.

**Urteko egun guztietan irekita...**

Bai. Urteko 365 egunetan egoten da irekita denda. Itxi izan dudanetan, oso arrazoi potoloengatik izan da.

**Tentazio ugari zuretzat ere, ezta?**

Bai, gehiegi. Gozozalea naiz, eta ordu batetik aurrera, gainera, gosea sartzen zait, eta tentazioan erortzen naiz.

**Zer saltzen da gehien? Eta gutxien?**

Gominolak eta patatak gehien. Gainera, kukurutxoak ere saltzen ditugu –guk geuk egindako gozoki zorroak–, bai urtebetetzeetarako edo ezkontza, jaunartze eta bataioetarako. Herritarren artean, txokolatea saltzen da gutxien; badirudi ez garela txokolate zaleak.

**Umeak ez ezik, helduak ere joango dira gozokiak erostera, ezta?**

Bai, umeen aitzakiapean guraso asko etortzen dira gozoki bila. Batzuetan, gainera, umeak bidaltzen dituzte dendara familia osoarentzat gozokiak erosteko. Horrez gain, esango nuke, dendara, orokorrean, heldu gehiago hurbiltzen direla.

**Anekdotarik?**

Aurpegi ezagun asko igaro dira hemendik: *Goenkaleko* Maria Luisa eta Jose Mari, *Bricomania*ko Iñigo Segurola, Barbara Goenaga aktorea txikitan...

**Imajinatzen al duzu zure bizitza gozoki dendarik gabe?**

Gogorra izango litzateke. Pazientzia behar den arren, harreman estua sortzen da bezeroekin. Itxiko banu, zerbait falta zaidan sentipena izango nuke.\*



1. Arantza Lasa Sanjuandegi auzoan duen gozotegian. 2. Arantzaren aita eta ama gozotegian duela dozenaka urte. 3. Lasa haur batzuekin Karnabal jaietan, gozotegi barruan.



# Mertxe, Ina

**E**z dakit zer zegoen pare horretan orain dela berrogei urte. Buruak ez dit askorik laguntzen. Pare horren parean, berriz, ni nagoen parean, Uitineko alkilerra zegoen. Bizikletak konpontzen zizkigun Uiti zaharrak bertan. Makina bat bizikleta txintxilik, hantxe. Bada, pare horretan ni, eta beste aldeko espaloiko parean, edo paretik, baina ez paretatik, baten bat hoska. Ez dakit ze izen esan duen ere, nire izenaren antzekoa izan litekeen izena aditu dudala besterik. Behar bada, behin baino gehiagotan hots egin du, ez gehiegitan, hala ere, bera –gero ikusi dut zein zen bera–, oso diskretua da eta, oso diskretua izan da beti. Jiratu naiz, jiratu dut lepo gaineko zerrautsontzi hau, eta Mertxe.

– Lapatx!, eta eman dizkiot bi muxu.

Lapatx. Lapatxeneko Mertxe. Ikastolako lehen andereño haietako bat. Eta jakin nahiko nuke inoiz kontatu duen, elkarrizketa luze batean, orduko giro hura dena. Nola hasi zen, zein joan zitzaion bila, Sanjuandegiko lokalean edo Loiolatxon izan zen, herrian zer zioten, eta kristau giroa, eta euskara batua, eta zeinek egiten zuen buru garai hartan, eta gurasoek egiten zuten lana, eta hau eta hori eta hura. Ez zait iruditzen bere burua inoiz ponderatu duenik. Bere lana egin du, egin zuen, eta horrelaxe. Eta jubilatatu zen, eta umeak izan:

– Ba al dakik zer esan zidan nirekin lanean ari zen irakasle batek?.

Eta orduantxe fortunatu beste andereño bat gure berriketara. Ina. Errezildarra. Mertxe baino gazteagoa, baina jubilatua Ina ere.

– Eeee!, eta hirurok berriketan, kontu zaharrak berritzen. Eta Inak ere ez du askorik kontatu, bere lekukotasuna hor da oraindik, baten batek bildu zain. “Artetxek ba omen zitu en”.

## Poz handia

Ikastolako gorabeherak ez ezik, bizitzakoak ere kontatu beharko lituzkete. Ikastaroak, ti-



|||||||miel a. elustondo||||

|||Eta bost minutuko konbertsazioa izan bada ere, hilabete baino gehiago iraundu bi andereñoak ikusteak eman didan pozak

tulazioak, zuzendariak, Jexux Gaztañaga, gizarte segurantzak, bateko eta besteکو esamesak, ikastolako lana eta etxekoa eta seme-alabak haztea. Lanean urterik onenak, eta, onenean, ikastolaren puskaketa, eta zalaparta.

– Iguale-iguale hago!

“Hik hori esan!”, pentsatu duzu. “Zuek ez zaudete iguale-iguale, eta nola egongo naiz, bada, ni, iguale-iguale! Zuek zahartu zareten moduan, berdin-berdin zahartu naiz ni. 60 urte”. Pentsatu dut, esan gabe ere.

Eta bost minutuko konbertsazioa izan bada ere –“joan beharra daukat, lana daukat plazan, elkarrizketa bat!”–, eta haien historien laurdenik ez badakit ere, hilabete baino gehiago iraundu bi andereñoak ikusteak eman didan pozak. Poz handiak.✳



Ametsetan? Egizu legan!



## TALDEKO BIDAIK

### Bidaia handiak, lagun handiak

#### TOSCANA



9 egun/8 gau .....1.995€

Irteera Bilbotik, urriaren 5ean.  
Mantenu erdia, gida laguntzailea  
Bilbotik eta txangoak sartuta.

#### VIETNAMEKO



16 egun/13 gau .....2.850€

Irteera Bilbotik, azaroaren 20an.  
Mantenu erdia, gida laguntzailea  
Bilbotik eta txangoak sartuta.

#### ARGENTINAKO KONTRASTEAK



16 egun/13 gau .....4.475€

Irteera Madrildik, azaroaren 24ean.  
Gida laguntzailea, txangoak eta bameko  
hegaldiak sartuta.

Bizikletak, kamerak, telebista, patinete elektrikoak, afariak,  
bidaiak, ordenagailua eta beste milaka sari!

# BADATOR

uztarriaren

# TONBOLA

**Uztailak 21, 22, 28, 29,  
30, 31 eta abuztuak 1**  
[Erdikaleko 2 zenbakian]

